




>SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA



**Bortziritako
Bilakaera Soziolinguistikoaren
Azterketa**

2006ko txostena



BORTZIRIETAKO BILAKAERA

SOZIOLINGUISTIKOAREN AZTERKETA

1	Sarrera	3
2	Ikerketaren helburuak.....	4
3	Lan faseak	5
4	Metodologia	6
	Aztertutako datuak	6
5	Oinarri teorikoak.....	10
5.1	Diglosia	10
5.2	Soziolinguistika orokorra	13
6	Bortzirietako ikerketa soziolinguistikoa: datuen irakurketa	19
7	Bortzirietako egoera diglosikoaren azterketa	44
8	Datuen irakurketa aurrera begira	47
8.1	Hurrengo datuen irakurketa egiteko irizpideak	47
8.2	Euskararen egoeraren diagnosia egiteko behar diren datu soziolinguistikoak.....	50
8.3	Metodologiaren aurkezpena	52
9	ERANSKINAK.....	54
9.1	Erabilitako datuak.....	
9.2	Fergusonen teoriak	
9.3	Gazte Euskaldunen Hizkera. I. Esnaola	
9.4	H. Boyerren teoriak	
9.5	Elebiduntasunari Buruzko Testa.....	

1 SARRERA

Hizkuntza plangintza eta hizkuntza kudeaketa egoki bat egiteko tokiko egoera soziolinguistikoa ondo ezagutzea ezinbestekoa da; maila makroan zein mikroan, alegia nazio baten hizkuntza plangintza edo toki jakin bateko enpresa txiki baten kasuan ere, ezinbestekoa da kudeatu nahi dugun tokiaren egoera soziolinguistikoa baloratzea.

Soziolinguistika Klusterrak bere misioan jasoa du euskararen berreskurapenean eta normalizazioan ekarpen kualitatiboa egitea euskal soziolinguistikaren eremutik. Bide horretan, normalizazio lanean dabiltzanei, prozesu hau bideratzeko tresnak eta laguntza eskaintzeko asmoa duela Soziolinguistika Klusterrak. Horretarako eta Bortzirietako euskara mankomunitateak eskatuta, Soziolinguistika Klusterrak Bortzirietako egoera soziolinguistikoaren berri eskaintzen du txosten honetan.

Sarri askotan datu soziolinguistikoak lortzen dira baina datuen irakurketarik ez da egiten, ez behintzat modu orokorrean eskuragarri ditugun datu guztiak kontutan hartuta eta egoerari buruzko irakurketa osoa eta orokorra eginez. Ikerketa honetan, Bortzirietako mankomunitateari buruzko datu soziolinguistiko guztiak kontutan hartuko ditu Soziolinguistika Klusterrak egoera soziolinguistikoaren diagnosia egiteko.

Txosten honek hiru atal nagusi ditu. Ikerlanaren helburuak eta lan faseak aurkeztu eta gero, lehenengo atal nagusian ikerketa honen metodologia aurkezten dugu. Alde batetik aztertutako datuak aurkezten dira eta bestetik txosten honen oinarrian aurkitzen diren oinarri teorikoak aurkezten ditugu.

Bigarren atalean Bortzirietako ikerketa soziolinguistikoa egiten dugu, datuen irakurketa eginez alde batetik eta bestetik egoera diglosikoaren azterketa eginez. Egoera diglosikoaren azterketak Bortzirietako egoera soziolinguistiko orokorra zertan den jakiteko balioko digu eta noski hizkuntzen kudeaketa egiteko irizpideak finkatzeko laguntzeko. Lan guztian zehar plangintza linguistikoaren helburu taldeak zeintzuk izan beharko liratekeen adierazten da emaitza soziolinguistikoaren arabera.

Txostenaren azken atal nagusian aurrera begira jarriko gara eta hurrengo datuen irakurketa egiteko irizpide batzuk zehaztuko ditugu eta lekuan lekuko euskararen egoeraren diagnosia egiteko behar diren datu soziolinguistikoak zeintzuk izan daitezkeen identifikatu ditugu. Ondoren aipatutako datu eta metodologiaren aurkezpena egiten da.

2 IKERKETAREN HELBURUAK

Bortzirietako azterketa soziolinguistikoaren helburu nagusiak mankomunitateko teknikariek elkarlanean adostu eta zehaztu dira. Helburu nagusiak lau dira:

Lehentasuna izan duen helburua Bortzirietako informazio soziolinguistikoaren gaineko azterketa orokorra egitea izan da.

Honez gain informazio eta datu horiek interpretatzeko jarraibide eskaintzea da txosten honen bigarren helburua.

Soziolinguistikaren garapen metodologikoa kontutan hartuta, hirugarren helburua lekuan lekuko euskararen egoeraren diagnostia egiteko lagungarri izan daitezkeen datu soziolinguistikoak zeintzuk diren identifikatzea izan da. Izan ere, askotan datu soziolinguistikoak biltzen saiatzen gara zehaztu gabe zeintzuk diren fidagarrienak, edo gure egoera kontutan hartuta zeintzuk diren garrantzitsuenak. Bide honetatik, ikerketa orokorra eta zehatza egiteko gogoeta bat egitea eta baliabide teorikoak eta metodologikoak identifikatzea eta aurkeztea izan da gure helburua.

Txosten honen asken helburua hurrengo urteetako irakurketa egiteko irizpideak finkatzea izan da eta horretarako hipotesi batzuk plazaratuko dira.

Helburu horiek guztiak betetzeko sarreran aipatutako banaketaren arabera banatu da Bortzirietako azterketa soziolinguistikoaren txostena.

3 LAN FASEAK

Proiektuak zazpi fase nagusi izan ditu.

Lehenengo fasean proiektuaren eta ikerketaren helburuak adostu, finkatu eta hitzartu dira Bortzirietako euskara mankomunitatearen teknikariek. Lehenengo fase honen arabera aurreko kapituluak zehaztu diren helburuak finkatu dira. Lan metodoa ere fase honetan adostu dugu.

Bigarren fasean datuak bildu ditugu. Ikerketa honetarako ez da daturik jaso. Alegia ez da inkesta edo neurketarik egin. Izan ere txosten honen helburua eskuragarri dauden irakurketa egitea baita, ez beste datu gordin batzuk eskaintzea. Behatutako unibertsoa Bortzirietako euskara mankomunitatekoa izanik ez da azpi multzorik zehaztu behar izan, ezta ere metodologi hobetsi beharrik izan. Maila teoriko aplikatua murgilduko gara beraz, metodologia kualitatiboen zein kuantitatiboen datuak erabiliz. Bigarren fase honetan beraz Bortzirietako euskara mankomunitatearen teknikariek Bortzirietan eskuragarri dauden datuen berri eman digute eta baita datu eta txosten guztiak eman ere.

Behin datuak eskuratu ostean, horien banan banako irakurketa egin dugu eta hirugarren fasera pasatu gara eta egoera diglosikoaren azterketari ekin genion. Bortzirietako ikerketa egiteko, konparaketak egin behar izan ditugu beste Euskal Herriko egoera batzuekin (Hirietakoa e.a.) eta noski diglosiaren kontzeptu teorikoa bere orokortasunean aztertu behar izan dugu. Horretarako diglosiaren kontzeptuaren garapen teorikoa aztertu dugu eta hainbat munduko eta bereziki Europako egoera diglosikoak aztertu ditugu. Ikerketa teoriko lan guzti hori egiteko Soziolinguistika Klusterreko teknikariek berezko prestakuntza teorikoa izan da oinarria.

Laugarren fasea zeharkakoa izan da eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen programaren oinarritzko ebaluazioa egitea izan da eta plangintza linguistikoa egiteko lehentasun batzuk finkatu, aztertutako datu soziolinguistikoen arabera.

Irakurketak eta azterketa soziolinguistikoa egin eta gero, bosgarren fasera pasatu gara. Fase honetan diagnosis soziolinguistikoa egiteko, lagungarri izan daitezkeen datu soziolinguistikoak zeintzuk diren identifikatu ditugu.

Azken aurreko fasea, laugarrena bezala, zeharkakoa izan da. Fase honetan lan guztia aditu lantalde batekin kontrastatu da. Seigarren fase hau zeharkakoa izan da, izan ere, proiektu guztian zehar eta fase guztietan zehar adituen ekarpenak jaso dira ondorioak ez ezik proiektua eta datuen irakurketa bera ere ahalik eta egokien izateko.

Zazpigarren eta azkeneko fasean, ondorioen lanketa egin da, txostena gorpuztu da eta metodologiak aurkeztu dira.

4 METODOLOGIA

Aztertutako datuak

Atal honetan txosten honetan erabili diren metodologiak, datuak eta iturriak aurkeztuko dira.

Hizkuntza gaitasuna, ama-hizkuntza eta etxeko hizkuntza.

Hizkuntza gaitasuna, ama-hizkuntza eta etxeko hizkuntzari buruzko datuak hizkuntza baten egoera ezagutzeko oinarritzko datuak dira. Hainbat kasutan errolden bitartez lortzen dira eta datuak jasotzeko metodologia asko baldintzatzen ditu datu guztiak.

Esate baterako, gaitasunari dagokionez, EAEko hainbat ikerketetan gaitasuna modu orokorrean ulertzen da, alegia hiztuna erdalduna den, edo elebiduna den e.a. Kasu honetan azpi multzoak ere zehazten dira: elebidun orekatuak, euskal elebidunak, erdal elebidunak, elebidun hartzaileak (ikus Isasi, BAT 13-14, 27-50 orr.).

Nafarroan aldiz gaitasunak ezberdintzen dira, alegia hitz egiteko, ulertzeko, irakurtzeko eta idazteko gaitasunak ezberdintzen dira. Gurutzaketak eginez, zazpi motako hiztunak ezberdindu daitezke: Euskaldun alfabetatuak, Euskaldun partzialki alfabetatuak, euskaldun alfabetatugabeak, ia euskaldun alfabetatuak, ia euskaldun alfabetatugabeak, ia euskaldun pasiboak eta erdaldunak. Sailkapen hau oso eztabaidakora da baina zergatiak azaltzea ez da txosten honen helburura.

Ama hizkuntza eta etxeko hizkuntzari buruzko datuak funtsezkoak dira egoera soziolinguistikoari buruzko gogoeta bat burutzeko. Izan ere, hizkuntzaren transmisioari buruzko informazioa ematen digutelako, baina datu hori normalean hobe da zuzenean galdetzea, eta bereziki mugikortasun linguistikoari buruzko datuak ematen dizkigulako. Hizkuntza ordezkapen egoera batean oso datu baliagarria da mugikortasun linguistikoarena, izan ere egoera horietan hainbat hiztunek haien gaitasuna hizkuntza gutxituan erabat edo partzialki galtzen dute, nahiz eta hizkuntza gutxitua haien ama hizkuntza izan.

Euskararen Kale erabilera

Euskararen egoera ona den edo txarra den, hobera doan edo okerrera doan galdetzen digutenean, askotan ez dugu jakiten nola erantzun, eta sarri erantzuna bera oso modu subjektiboan ematen dugu. Zentzu honetan, gero eta garrantzitsuagoa zaigu euskararen egoera eta bilakaera modu objektiboan baloratzeko aukera ematen diguten datuak izatea, eta datu horien artean bada bat herriko euskararen errealitatea adierazteko funtsezkoa dena: kalean erabiltzen den euskararen neurketa, hain zuzen ere.

Badira beste hainbat datu (erroldako ezagutza datuak, ikastetxe eta euskaltegietako matrikulazio datuak...) herriko hizkuntza egoera ezagutzeko baliagarri direnak. Hala ere, herrian euskararen

normalizaziorako ahaleginen ondorioak eta denborarekin ematen diren aldaketak eguneroko erabileran islatzen dira; gure herriko esparru ezberdinetan, besteak beste, herriko kaleetan. Kale erabileraren neurketak, hortaz, errealitate horren berri ematen digu modu zuzen eta objektibo batean.

Izan ere erroldak eskaintako datuak aitortuak dira eta gero ikusiko dugun moduan, kontu handiz erabili behar dira aitortutako datuak, errealitatea islatu baino behatu den pertsonaren nahiak eta usteak islatzen dituzte.

Kontuan izan behar dugu, hizkuntza egoerari buruz ematen diren datu gehienak, oro har, hiztunek inkestetan aitorturiko datuak direla (erroldakoak, inkesta bidezko ikerketak, etab.). Hau horrela da, besteak beste, erabilera modu errealean neurtzea ez delako erraza izaten. Soziolinguistika Klusterrak egindako neurketak kalean behaketa zuzenaren bidez lorturiko datuak eskaintzen ditu. Horretarako, gainera, oinarri metodologiko sendoa dugu Soziolinguistika Klusterrean eta Bortzirietako Kale neurketa gehienek elkarlanean egin ditugu.

Gaur egun Soziolinguistika Klusterra arduratzen da Euskal Herri mailan Kale Erabileraren Neurketa egiteaz eta horrez gain zenbait udalerritan ere egin ditugu honen antzeko neurketak (esate baterako, gaur egunera arte 40 bat herritan burutu ditugu neurketak, SEI Elkartearen izenean eta beste hainbeste Soziolinguistika Klusterraren izenean).

Bortzirietan egin diren Kale Erabileraren Neurketen oinarri metodologikoa Euskal Herri mailan egiten den neurketan garaturikoa da, baina kasu honetan herriko berezitasunetara egokituta.

Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketa Orokorra 1989. urtean egin zen lehen aldiz eta geroztik lau urtez behin errepikatu da: 1993an, 1997an, 2001ean eta 2006an ere egin da. 2001eko neurketan Euskal Herriko 5.000 biztanletik gorako herri guztietan eta hemendik beherako batzuetan egin dira neurketak. Orotara 250.000 hiztunetik gora behatu ziren kalean hizketan. 1998an EKB desagertu ondoren, SEIk hartu zuen bere gain Neurketa Orokorra egitearen ardura eta 2001eko azaroan bertan egin genuen IV. Neurketa. Modu horretan, beraz, SEIk orain arteko neurketen oinarri metodologikoa eta esperientzia jaso du, eta orain, Soziolinguistika Klusterrak oinarri kontrastatu hau erabiliz egin eta aholkatu zituen Bortzirietako neurketak ere.

Egoera soziolinguistikoaren datua ez ezik, Kale Erabileraren datua ere funtsezkoa da herri mailan hizkuntza errealitatea ezagutu edota planifikatu nahi duen edonorentzat. Euskararen aldeko sustapen lan bat aurrera eraman ahal izateko baliabideak mugatuak izan ohi direnez, beharrezkoa zaigu premiarik larrienak zein diren ezagutzea, lehentasunak finkatzea, eta ondoren horiengan eragiteko ekimenak martxan jartzea.

Neurketak, besteak beste, adin talde bakoitzak kalean euskara zenbat erabiltzen duen esaten digu, eta horrek asko errazten digu ondoren lehentasunak non dauden identifikatzeko. Gainera, Kale Erabileraren neurketak maiztasun batekin eginez gero (urtero, bi urtez behin...), urtetik urtera gertatzen den bilakaera ezagutu ahal izango dugu, eta modu horretan herrian izaten diren hizkuntza aldaketak gertutik jarraitu ahal izango ditugu.

Alde horretatik, Bortzirietan 1994tik euskararen erabileraren neurketa asko egin denez, 2003ko Kale Erabileraren Neurketako datuak aurreko neurketetan jasotako datuekin alderatu eta dagokion interpretazioa egin ahalko dugu. 2003ko Kale Erabileraren Neurketan, 2001eko neurketaren diseinu

bera jarraitu da, hala ere ez zen erabat berdina izan bereziki behatutako aldagaiei dagokienez. Funtsean, erabilitako metodologia antzerakoa da –behaketa zuzena-. Erreferentzia gisa datuen konparaketa jaso dugu. Argi adierazi nahi dugu, ordea, konparaketa behar bezala egiteko neurketaren diseinuak berbera izan behar duela eta beraz konparaketa honetatik ezin dugula ondorio zuzenik atera baizik eta norabide batzuk zehaztu.

Irakaskuntzaren datuak

Fishmanen *Reversing Language Shift* (Fishman 1991, 2000) teori famatuetan agertzen den moduan, hizkuntza gutxitu baten berreskuratze eta normalizazio prozesu baten, irakaskuntzaren tokia funtsezkoa da. Bortzirietako egoera soziolinguistikoaren aurkezpena egiteko Bortzirietako euskara mankomunitateak helarazitako “Bortzirietako matrikulazio datuak 2004-2005 ikasturtea” izendutako txostena erabili dugu (Ikus eranskinak). Aipatutako txostena kontutan hartuta, haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta DBHko matrikulazio datuak aztertu ahal izan ditugu eta honen arabera Bortzirietako testuinguru orokorra ezagutzeko balio izan digu eta aldi berean testuinguru soziolinguistikoa aztertzeko eta finkatzeko ere balio izan digu.

Helduen euskalduntze alfabetatzea

Euskal Herriko testuinguru soziolinguistiko historikoan helduen euskalduntze alfabetatze ahaleginak gaueskola eta euskaltegien bitartez berezia da. Momentu honetan euskaltegien betebeharrak nagusia ez dakitenei euskara erakustea da, baina alfabetakuntzan ere berebiziko garrantzia dutela ez zaigu ahaztu behar. Ikerketa honetan erabili ditugun datuak Bortzirietako euskaltegiak emandakoak izan dira eta Bortzirietako euskaltegiko ikasleen bilakaera jasotzen dute.

Bortzirietako agenda 21. Encuesta de percepción ciudadana

2005ean TERRA-PROMETEA argitaratutako lan soziologiko honetan euskarari buruzko datu batzuk agertzen dira. Esate baterako Bortzirietako mankomunitatearen euskara zerbitzua ea ezagutzen duten, asebetetze maila batzuk finkatzen dira e.a. Galdetegiaren 2. eta 3. galderetan bereziki aurkituko ditugu dagokigun informazio interesgarriena.

Merkataritzari buruzko azterketa (SIADECO)

Euskara merkataritzara planaren barruan “Bortzirietako merkataritza establezimenduetan euskararen erabilera sustatzeko egitasmoa” deitutako txostena osatu zuen SIADECOK 1998an. Txosten honetan merkataritza establezimenduetako hizkuntza egoera, bilakaera eta lortutako emaitzak azaltzen dira. Sektore estrategikoa da merkataritzarena hizkuntza baten normalizaziorako, izan ere gizarte bizitzaren arlo bete-betean baita eta bestetik hizkuntzaren normalizazioa lan tresna moduan adierazten du.

Jarrerak Bortzirietan (Taller de Sociología)

1999an Taller de Sociología S.L.k, Baztango, Malerreka eta Bortzirietako azterketa soziolinguistikoa egin zuen, mankomunitate horiek eskatuta. Ikerlan honetako helburua eskualde

horietako biztanleek euskararen inguruan dituzten beharrak, iritziak, jarrerak eta horien guztien ondoriozko jokabideak ezagutzea izan da.

Metodologiaren aldetik, ikerlanak bi lan-ildo nagusi izan zituen: batetik, taldeko praktiken bitartez, hainbat talderen diskurtsoetan ageri diren motibazio eta jarrera elementuak aztertu ziren. Bestetik galdetegi bidezko elkarrizketa pertsonalen bitartez eskola adineko gazteen kolektiboa eta helduena aztertu zen.

Ikuspegi soziolinguistiko batetik jarrerei buruzko informazioak oso garrantzitsuak dira. Dena den, gure ikerketa egiteko garai anitzeko datuak daude eta Taller de Sociología S.L.ren lana, SIADECOREna bezala orain dela zortzi urtekoak dira gutxi gora behera eta beraz analisisa sinkronikoa eta diakronikoa nahasten direla eta horrek bilakaerak ezagutzeko ahaleginak zailtzen duela kontutan hartu beharko da. Dena den ohar horiek kontutan hartuta bi ikerketa horien datuak baliagarriak izango dira oso.

5 OINARRI TEORIKOAK

Ikerketa soziologiko edota soziolinguistikoa egiterakoan, datuak eta ikuspuntua ondo ulertzeko ezinbestekoa izaten da ikerketaren oinarri teorikoa kontutan hartzea. Gure kasuan, Bortzirietako egoera soziolinguistikoa azterketa egiteko esate baterako, soziolinguistikaren diglosia kontzeptua oso baliagarria izan zaigu, horregatik, kontzeptu honen inguruan hainbat azalpenak egingo ditugu lehenengo atalean. Bigarrenean aldiz datu soziolinguistikoak nola aztertu alde teorikotik ikusiko dugu eta soziolinguistikari buruzko hainbat iruzkin orokorra egingo ditugu.

Atal honetan aurkeztu ditugun oinarri metodologikoak, azterlan honen oinarria ulertzeko balio dute alde batetik, eta bestetik hurrengo datuen irakurketa egiteko balio dute dudarik gabe, izan ere, bertan hainbat irizpide aipatzen eta azaltzen baitira.

5.1 Diglosia

Elebidun egoeren gizarte azterketan, diglosia hitzak protagonismo handia lortu du, baina hitz hau historia soziolinguistikoan zehar, era ezberdin batzuetan erabili da. Kontzeptu honen definizioak ikusiko ditugu jarraian eta horiek plazaratzen dituzten errealitate soziolinguistiko ezberdinak.

Diglosia kontzeptuaren sorrera

Diglosia hitzaren lehenengo aipamena hizkuntzalaritzan, Emmanuil Roidisek egin zuen 1885. urtean Greziaren egoera soziolinguistikoa deskribatzeko. Frantziako Jean Psichari diglosia hitza lehenengo aldiz definitu zuen autorea da. 1928an izan zen, bere artikulu batean, non, berak ere Greziaren egoera deskribatzen zuen. Autore honek azaltzen zuen moduan, Grezian grekoaren bi bariedade lehian daude: alde batetik *katharevousa* deitzen dena aurkitzen da, jakintsuen bariedade dena, idazteko inposatu dena; beste aldetik demotiki/dhimotiki aurkitzen da, egunerokotasunean erabiltzen den bariedade da, Greko gehienek erabiltzen dutena.

Diglosiaren Ipar Amerikako eredia.

Baina diglosia hitzaren zabalkundea Ipar Amerikako soziolinguistikaren bitartez heldu zen. 1959an Word aldizkarian, Charles A. Fergusonek “Diglossia” deitutako artikulua kaleratu zuen (Ikus eranskinak). Artikulu honetan, kasu praktiko batzuk kontutan hartuta diglosiaren definizioa eman zuen. Tartean Greziaren egoera, herri arabiar batzuen egoera, Suitza Alemanikoarena eta Haitiren criolloa aztertu zituen. Bere definizioa 9 puntutan banantzen da:

a. Funtzioa

Diglosia kontzeptuaren osagai garrantzitsuena funtzioa da seguruenik. Fergusonentzat, diglosia kasuetan hizkuntza baten bi bariedade nahiko ezberdinak aurkitzen dira: A bariedadea eta b bariedadea (Alta eta baja). Arabiaren kasuan adibidez, A arabiar klasikoa izango litzateke eta b arabiarren eguneroko erabilerak, herri arabiar batetik bestera aldatzen dena. Hizkuntz komunitatean, banaketa funtzional bat egiten da A eta b artean, non egoera batzutan A bakarrik egokia den eta beste batzutan aldiz b den egokia. Oso kasu gutxitan izan daitezke biak egokiak egoera jakin baterako. A bariedadea egoera formaletarako erabiltzen da (elizan, diskurtso politikoan, olerrietan...). b bariedadea aldiz egoera informaletan eta egunerokotasunean erabiltzen da (familian, morroei aginduak emateko, lagunekin...).

Heziketari dagokionez, A bariedadea erabiltzen da eta liburuak bariedade honetan idatzita daude, baina klasean bertan irakasleak b erabili behar izaten du azalpenak emateko.

b. Prestigioa

A barietatea b baino hobea kontsideratzen da gizarte osoan, A ondo ezagutzen ez dutenek ere hori pentsatzen dute. “El gran respeto que se tiene por A, y su pertinencia en las funciones elevadas, es para los hablantes más importante que su intelegibilidad a la hora de decidir qué variedad utilizar en estas situaciones (formales)” (Fasold, 1996: 74).

c. Tradizio literarioa

A barietatean tradizio literario handia egon behar du, gizarte osoak onartzen duena.

d. Ikaste prozesua.

B barietateak umeei hitz egiteko balio du eta eguneroko bizitzan erabiltzen den barietatea da, inkontzienteki ikasten da. A aldiz gaineratua da, eskolan ikasitako barietatea da.

e. Normalizazioa.

A, barietate normalizatua da, berari buruz gramatika batzuk idatzi dira eta ikertua izan da. Bere alfabetoa eta bere norma ortografikoak finkatuta daude. b barietatearen kasuan, aldiz, ikerketa gutxi egin dira, eta hori logikoa da zeren eta normalean b, A-ren deformazioa bezala hartzen da.

f. Egonkortasuna.

Fergusonentzat, diglosiaren egoera iraunkorra da eta bere ustez batzuk mende batzuetan zehar igaro dira.

g. Gramatika.

A eta b hizkuntz baten barietateak dira, hala ere, Fergusonen arabera ezberdintasun batzuk izan behar dute A eta b gramatiken artean.

h. Lexikoa.

Hiztegiaren zati gehiena konpartitua izan behar dute A-k eta b-k. Hala ere, hitz kultuak bakarrik A hizkuntzan aurkitzen dira eta nekazaritzari edo sukaldeari e.a. buruzko hitz batzuk bakarrik b barietatean egon daitezke.

i. Fonologia.

Berdina izan daiteke edo ez.

Diglosiaren bederlatzi ezaugarriak aurkeztu eta gero, Fergusonek diglosiaren definizioa plazaratzen du:

“La *diglosia* es una situación lingüística relativamente estable en la que, además de los dialectos básicos de la lengua (que pueden incluir un dialecto estándar o dialectos estándares regionales), existe una variedad superpuesta, muy divergente y altamente codificada (a menudo más compleja gramaticalmente) que es el medio de expresión de una extensa y respetada parte principal de la literatura escrita, bien de un período anterior o de otra comunidad de habla, y que se aprende en gran parte mediante la enseñanza formal y se usa en la mayoría de las situaciones formales orales y escritas, pero que ningún sector de la comunidad usa en la conversación cotidiana”.

Joshua Fishmanek, Fergusonen kontzeptua garatu egin zuen, elebitasun eta diglosiaren arteko ezberdintasunak azalduz. Berarentzat, eleaniztasuna psikologo eta psikolinguisten ikerketa esparrua da, diglosia aldiz soziologoena eta soziolinguistena. Eleaniztasuna indibiduoari dagokio: hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeko gaitasunari dagokio. Diglosia aldiz, hizkuntza bat baino gehiagoren banaketa funtzionala da. Autore honen hitzetan: “bilingüismo es esencialmente una caracterización de la versatilidad lingüística *individual*, mientras que la diglosia es *una caracterización de la ubicación social de las funciones* para diferentes lenguas o variedades” (Fishman, 1995: 129).

Fishmanek bere definizioan Fergusonekiko aldatzen duen gauza nagusienetariko bat zera da: bi barietate edo hizkuntza baino gehiagok osatu dezaketela diglosia egoera bat, eta ez bakarrik bi barietatek, izan daitezke hiru edo lau adibidez. Honi lotuta beste aldaketa garrantzitsua, hizkuntza baten barietatea ez ezik hizkuntza ezberdin batzuen kasuak ere kontutan hartzen direla da. Fishmanen

arabera banaketa funtzionala egoera diglosikoen ezaugarri nagusia da: “Mientras que un conjunto de conductas, actitudes y valores apoyaban y eran expresados en una lengua, otro conjunto de conductas, aptitudes y valores eran expresados en la otra” (Fishman, 1995: 120).

Gainera, Fishmanentzat gizartean zabaldua dagoen elebiduntasunaren gradu indibiduala oso garrantzitsua da eta diglosiaren egoeren banaketa egiten du honen arabera. Lau kasu ezberdintzen ditu Fishmanek:

- a. Diglosia eta elebiduntasun kasuak.
- b. Diglosia elebiduntasunik gabe.
- c. Elebitasuna diglosiarik gabe.
- d. Ez diglosiarik ezta elebitasunik ere.

	Diglosia	
	+	-
Elebiduntasuna	a. Diglosia eta elebiduntasuna	b. Diglosia elebiduntasunik gabe
	c. Elebitasuna diglosiarik gabe	d. Ez diglosiarik ezta elebitasunik

a. Diglosia eta elebiduntasuna: kasu honetan, bi hizkuntzen erabilera banaketa funtzionala hitzun guztiek edo ia-ia guztiek egiten dute. Suitza alemanikoaren kasua izango litzateke adibidez, non aleman estandarra (eskolarako eta idazteko) eta alemaneko dialekto suitzarrak eguneroko bizitzan erabiltzen diren, eta hori ia-ia populazio guztiak egiten du.

b. Diglosia elebiduntasunik gabe: Kasu honetan “dos o más comunidades lingüísticas (son) unidas política, religiosa y economicamente en una unidad en funcionamiento a pesar de las diferencias socioculturales que las separan” (Fishman, 1995: 121). Kasu honetan talde menderatzaile batek A erabiltzen du eta gizartearen zati handienak, botererik gabe dagoenak, b baino ez du erabiltzen. Fishmanek Errusia Tzaristaren adibidea ematen du, non, gizarteak errusieraz hitz egiten zuen bitartean, eliteek frantsesez egiten zuten, herri kolonizatuen egoerak ere, hemen kokatzen dira.

Karmele Rotaetxek, Euskal Herriaren kasua hemen kokatzen du, hala ere bere ikuspuntua zehazten du: “estas situaciones (Euskadi, Cataluña y Galicia) encajan aquí (...) porque no encajan en la casilla 1 (elebiduntasuna eta diglosia)” (Rotaetxe, 1990: 68).

c. Elebiduntasuna diglosiarik gabe: Kasu honetan gizartearen zati handi bat elebiduna da baina ez dago banaketa funtzionalik hizkuntzen erabileretan. Fishmanen arabera egoera horiek igarokorrak dira eta ez dira luzatzen.

d. Ez diglosiarik ezta elebitasunik ere: kasu hau teorikoa da hizkuntza baten estilo ezberdin batzuen erabilera diglosian kokatzen baitu Fishmanek. Beraz horrelako gizarteak oso txikiak, bakartuak eta igualitarioak izan behar dute. Autoreak esaten duen bezala: “tales grupos (...) son más fáciles de imaginar que de encontrar” (Fishman. 1995: 132).

Ipar Amerikako testuinguru epistemologikoan diglosia kontzeptuaren eredu “klasiko” honek beste zuzenketa eta osaketa batzuk izan ditu baina ez da funtsean aldatu (ikus adibidez Fasold, 1996).

Diglosia eta gatazka

Europar jaiotako beste eredu batek zalantzan jartzen du Ipar Amerikako diglosia kontzeptuaren definizio sinkronikoa eta deskriptiboa. Katalunian garatutako ikuspuntu honek, analisia modu dinamiko eta diakroniko batean egiten du. Honen arabera, eleaniztasun egoera diglosikoak, gatazkatsuak dira eta oso aldakorak. Hizkuntzen funtzioen banaketa funtzionalak eta errepresentazionalak menperatze fenomeno bat inplikitzen baitute; eta horregatik bi irtenbide bakarrik izan ditzake: hizkuntz gutxituaren ordezkapena, edo hizkuntz gutxituaren normalizazioa. Normalizazioa lortzeko erresistentzia eta hizkuntz planifikazio prozesu bat izan behar dira. Hizkuntz gatazkaren korrontean, aipatu behar diren autore garrantzitsuenen artean, LL. V. Aracil, R. Ll. Ninyoles eta F. Vallverdú aurkitzen dira. Normalean definizio gatazkatsu honi egiten zaio erreferentzia Euskal Herrian diglosiaz hitz egiten denean.

Bortzirietako egoera soziolinguistikoaren diagnostika egiteko bigarren eskola honen ikuspuntua hartuko dugu, hala ere analisi metodologikoa egitekoa diglosia arruntaren tresnak erabiliko ditugu.

5.2 Soziolinguistika orokorra

Soziolinguistikaren sorreraz

Ikerketa soziolinguistikoen funtsa ondo ulertzeko soziolinguistikaren sorreraren inguruko testuinguru epistemologikoa kontutan hartu behar da.

Azurmendik (1999) gizarte psikologiaren sorreraren testuinguru epistemologikoa argi aurkeztu du eta oso lotuta dago gure kasuarekin.

70. hamarkadan kokatzen gara. Azurmendiren arabera, “(la) etapa postmoderna de la psicología social” hasten den momentuan, ikertzaileak errealitatearen ezagupenaren efimerotasunaz eta iragankortasunaz konturatzen dira. Errealitatea historikoki ainguratuta dagoela konturatzen dira: “el conocimiento de la realidad consiste en algo efímero, anclado históricamente, con una historicidad también cambiante desde el presente (tanto respecto al pasado como respecto al futuro), por eso necesariamente incompleto” (Azurmendi Ayerbe, 1999: 47). Ezagupenak, berez behin behinekoak dira eta horregatik gizarte psikologoak izan behar du “ un permanente desconstruidor de los acontecimientos acumulados” (Azurmendi Ayerbe, 1999: 47). Ikuspuntu honetatik, errealitatea seinale multzo bat da, egite bat dena, partekatua dena.

Une epistemologiko berri hau argi geratzen da Serge Moscoviciren “psychologie des minorités actives” liburuaren sarreran: Moscovicik, bere liburuarekin, une berri bat ireki nahi duela gizarte psikologian adierazten du, aurrekoekiko ikerketekin eta ikuspuntuekin haustura bat egiteko. Gizarte funtzionalistaren ikuspuntu tinko batetik, gizartea gehiengoaren ikuspuntutik deskribatzen duena, menperatzaileen ikuspuntutik, errealitatea uniforme, iraunkorra eta aldaezina balitz bezala; gizarte psikologi kritiko batera heldu nahi du Moscovici-k. Etengabe aldatzen ari den errealitatea, era dinamiko batean deskribatu behar da, gutxiengotuen eta menperatuen ikuspuntutik (Moscovici, 1996: 13-15).

Azken eredu hau “genetikoa” da Moscovici-ren hitzetan eta eredu honen eta funtzionalistaren arteko ezberdintasunak era honetan laburbiltzen ditu Moscovicik:

« Pour mettre en lumière les différences qui séparent le modèle fonctionnaliste du modèle génétique, on pourrait dire que l’un envisage la réalité sociale comme donnée, l’autre comme construite ; le premier souligne la dépendance des individus relativement au groupe et leur *réaction* à celui-ci, tandis que le second souligne l’interdépendance de l’individu et du groupe et l’*interaction* au sein du groupe ; celui-là étudie les phénomènes du point de vue de l’équilibre, celui-ci du point de vue du conflit. Enfin, pour l’un, individus et groupes cherchent à s’adapter ; en revanche, pour l’autre, ils tentent de croître, c’est-à-dire qu’ils cherchent et tendent à transformer leur condition et à se transformer (...) ou encore à créer de nouvelles façons de penser et d’agir » (Moscovici, 1996 : 15)

Aipamen honetan, ikerketa « zaharraren » eta « berriaren » arteko ezberdintasunak eta abiapuntuak argi geratzen dira. Testuinguruari buruzko gogoeta horiek interesgarriak gertatzen dira soziolinguistikari aplikatzen badizkiogu. Aurreko atalean aurkeztutako diglosia kontzeptuaren bi ereduei aplikatuz ere oso baliagarria izan daiteke. Gizarte psikologian gertatzen den dikotomia, gurean ere aurkitzen da. Ipar Amerikaren eredu, « funtzionalista estatikoa da » (Boyer, 1991 : 18), egoera *orekatuta* eta *egonkorra* balitz bezala deskribatzen du, eta abiapuntua, oinarrian, talde menderatzailearena da gehienbat. Gatazkaren eredu aldiz, askoz dinamikoagoa eta eztabaidakorragoa da, egoera gatazka moduan hartzen du eta abiapuntua menderatuena da.

Bortzirietako ikerketa soziolinguistikoa egiteko beraz errealitatearen mugikortasuna kontutan hartu dugu. Kontutan hartzeak metodologian du ondorio gehien, izan ere datuen objetibotasunaz eta subjektibotasunaz jabetuko gara eta imaginario linguistikoa kontutan hartu beharko da.

Datuen objetibotasunaz eta subjektibotasunaz

Bortzirietako azterketa soziolinguistikoa egiteko erabili diren iturriak aurkeztu ditugunean aipatu ditugu datuen objetibotasun eta subjektibotasun kontzeptuak.

Premiazkoa da ikertzailearentzat hizkuntza eta kognizioak errealitatea ulertzeko duten garrantziaz ohartzea, eta are gehiago errealitate soziala ulertzeko. Shrödingerrek idatzi zuen bezala: “gizakiari dagokionez, munduaz duen pertzepzioa, izpirituaeren eraikuntza bat da eta beti hala izango da, ez du froga daitekeen beste existentziarik” (Shrödinger in Watzlawick, 1980: 51). Eta ikertzailea, gizaki guztiak bezala, lege honen menpe aurkitzen da, nahiz eta, Jaspersek esan zuen bezala: “Ez da dudarik zientzia ikerlariok etengabe tentazio bera dugula, hots: munduari behatzea gu, horren ezagutzeko kargua dugunok, haren parte ez bagina bezala, hari loturik ez bageunde bezala. Mundua ikertu nahi genuke, kontuan hartu gabe gu geu garelara horren ezaguera hartzen dugunok” (Shrödinger in Watzlawick, 1980: 51).

Beste era batera esanda, argi izan behar dugu beraz, errealitate objektiborik ez dagoela (edo behintzat gizakiak ez du lehen graduko errealite honetara sartzerik, hurbiltzerik), hots, errealite bat errepresentatua da, hori da gizabanakotik edo taldetik bereganatua, berreraikia bere sistema kognitiboan eta integratua bere balore sisteman.

Ez naiz luzatuko hemen kognizioaren ulermenean edo gizakiak mundua ulertzeko eta barneratzeko duen funtzionamenduz. Nire asmoa gizarte obserbazioan, errepresentazioak (eta jarrerak) ondo aztertzeak duen garrantzia azpimarratzea da bakarrik. Errealitate eta kognizioaren arteko harremani buruz sakondu nahi badugu, Palo Altoko MIRren lan batzuk irakur daitezke, “Constructivisme”aren eskolakoak: adib: Paul Watzlawick 1978, 1980, 1988 , baita psikosozioziologiaren eta beste diziplina batzuen ildotik idatzi diren lanak: Moscovici 1961, 1996, Abric 1994, Guimelli 1994, Maurer 1999, Azurmendi Ayerbe 1999, Bourdieu 1994, 1982.

Ikerketa egitean ere ikertzaileak ez badu errealitateari zuzenean hurbiltzerik, zer esanik ez inkestatuak galdera batzuei erantzuten dienean. Esate baterako, inkestatu batek nekez esango dizkigu bere benetako ohiturak euskararen erabilerari buruz gure galderari erantzunez. Bere erantzunak berak uste duena edo uste nahi duena azalduko du. Eta hori behatzailearen paradoxa kontutan hartu gabe. Alegia inkestatuak zintzo eta fede onez erantzun badio galderari eta ikertzailearen presentziak eragina ez badu izan datuak jasotzean. Baina jakin badakigu normalean ikertzaileak eragina duela, arauaren isla delako.

Beste alde batetik, galdera batzuei erantzunez inkestatua maila teoriko batean erantzuten duela kognizioko fenomeno ezaguna da (Abric, 1995). Eta maila teoriko horrek askotan ez du islatzen maila praktikoa. Horregatik behaketa zuzenak, euskararen erabilera neurketa bezalakoak garrantzi handikoak dira.

Hori guztia kontutan hartuta, aztertzen dugun gizartearen imaginario linguistikoa ezagutzea ezinbestekoa da. Hori jarrerak, errepresentazioak eta analisi diakroniko bat eginez lortzen da. Gure kasuan neurri handi batean ezin izango dugu ukitu ikuspuntu hau, dena den Taller de Soziología S.L.k egindako lana aztertuz erantzun dezente aurkitu daitezke.

Imaginario linguistikoa

Hizkuntzari buruzko errepresentazioek imaginario, hizkuntz irudimen bat osatzen dute, barruko hizkuntzaren arauak finkatzen dituen (adib: liburu bat hartu dut vs bat liburu hartu dut), erabileraren arauak ere finkatzen dituen (zein estilo erabili zein egoeratan) eta hizkuntzaren papera identitatean ere finkatzen duena (hizkuntza nazio baten elementu funtsezkoena da vs hizkuntza komunikatzeko tresna bat besterik ez da e.a).

Faktore ugari eragina dute imaginario linguistikoko baten eraikuntzan. Adibidez, lexikografoek hiztegi bat sortzen dutenean, arau batzuk sortzen eta finkatzen dituzte, hizkuntzaren zabalkundea nola egin den, alfabetizazioaren historia, hizkuntzaren papera nazioaren eraikuntzan e.a. Orokorrean hizkuntzaren inguruan historia osoan zehar jaso diren gertakariak, imaginario linguistikoa bat osatzen dute. Gai honi buruz ezinbestekoa da Daniel Baggioni idatzitako “Langues et nations en Europe” irakurtzea (Baggioni, 1997). Liburu honek hizkuntza eta nazioen arteko lotura, imaginario linguistikoa dagokionez, argitzen du. Alfabetizazio, gramatizazio prozesu historikoak ere agerian uzten ditu autore honek.

Imaginario linguistikoa dagokionez, hiru eredu ezberdin daitezke, nahiz eta beste asko egon (Branca-Rosoff in Boyer, 1996: 98).

Lehenengo eredu instrumentala da, kontzeptu honen osagai garrantzitsua erregularitasuna da. Irregularitasunak sistematik at geratu behar dira. Esperantoa adibide garbia da, hizkuntza laborategi batetik sortutako hizkuntza hau guztiz erregularra da, hizkuntza matematikoa dela esan genezake.

Bigarren ereduia “ondratuaren” ereduia da. Elite mundutar baten erabileraren arabera finkatzen dira hizkuntzaren arauak. Gorte hizkuntza da zuzena dena kasu honetan, eta hizkuntzak ezberdintzeko balio du: klaseak haien artean eta baita nazioak haien artean ere. Araua preskriptiboa da (“modu honetan esaten da eta ez beste modu honetan”) elitearen hizkuntz “zuzenaren” arabera finkatua.

“Egiazko” ereduia da hirugarrena. Kasu honetan lekua eta herria nabarmentzen dira. Hizkuntza, herri batena da, eta identitatearen defentsa (hizkuntzarena) etengabekoa da, hizkuntzaren garbitasuna mantentzeko.

Benetako egoerak aztertzerakoan, ereduak nahasten direla konturatzen gara, ideologi soziolinguistiko bat osatzeko. Boyerek, Frantziako ideologi soziolinguistiko oso ondo azaldu zuen bere artikulu batean (Boyer 2000, 2001)¹. Autore honek, Frantziako kasuan hiru errepresentazio oinarritzkoak azalarazten ditu:

-Hizkuntz historikoen hierarkia azaltzen duen errepresentazioa. Honen arabera, hizkuntz batzuk (frantsesa besteak baino gehiago) besteak baino egokiagoak eta politagoak izango lirateke eta horregatik unibertsalak izateko joera izango lukete. Filosofiaz hitz egiteko edo ideiak garatzeko besteak baino egokiagoak izango lirateke.

-Bigarren errepresentazioa politiko-administratiboa da. Frantsesari dagokionez, hizkuntz “nazionala” eta hizkuntz “ofiziala” batzen dira eta Frantziako eremu geografikoan geratzen diren hizkuntzak kanpoan uzten dira. Ez dira zuzenki hizkuntzak, “patois” batzuk, jerga batzuk dira oso estigmatizatuak daudenak.

-Hirugarren errepresentazioa hizkuntzaren zuzentasunari lotuta dago. Frantses hizkuntza perfektua izatera ailegatu omen da. Bera eta bere erabilera beraz, bat eta bakarra izan behar dute, araua apurtzea, bariazioa egitea, intelektoaren eta adimenaren aurkako atentatua izango litzateke.

Boyerek aurkeztutako hiru errepresentazio horien arabera, Frantziako ideologi soziolinguistikoak, eskolaren bitartez zabaldu denak, bi ezaugarri nagusi ditu, debekuari lotuak:

a. Ni Concurrence (Konkurrentziarik, lehiakiderik ez): Hizkuntz nazionalak ez du beste hizkuntz baten lehia onartzen (baina alde honetatik ez dago arazorik zeren eta Frantziako eremu geografikoan hizkuntz bakarra dago, beste hitz egiteko erak ez dira hizkuntzak ikuspuntu honen arabera).

B. Ni déviance (Desbideratzerik, bariaziorik ez): Arau legitimo bakarra dago eta beste bariazio guztiak oso estigmatizatuak dira.

Euskal Herriko imaginario linguistikoa

Euskal Herriari eta euskarari dagokienez, sakon aztertu gabe, ondorio xume batzuk atera daitezke. Hizkuntz bariazioa bezala, hizkuntzaren imaginarioa ez dago finkatuta eta etengabe aldatzen ari da.

¹ Frantziako eta Espaniako kasuen azterketa X. Erize Etxegarriaren tesian ere aurkitu daitezke (Erize etxegarrai, 1997, 79-92).

Baggioniren arabera hizkuntza iraultzek (gramatizazioa e.a) denbora luze bat behar dute finkatuta eta onartuta izateko (Baggioni, 1997), eta ez da Euskal Herriaren kasua. Ideologi soziolinguistikoa, Euskal Herriaren kasuan, oso labainkorra da, etengabe eboluzionatzen ari da eta pertsona batetik bestera ezberdina da. Tokiaren egoera soziolinguistikoaren arabera oso aldakorra da. Bilbo, Ondarroa eta Arantza aztertzea ez da gauza bera. Lan honen helburua izango da, ahal den neurrian, Bortzirietako egoera zein den zehaztea imaginario linguistikoari dagokionez, ditugun datuak erabiliz.

Ikerketen arabera, Euskal Herriko ideologi soziolinguistikoa orokorrean identitateari nabarmen lotuta dagoela pentsa dezakegu. Baina lotura hori, gehienetan, teorikoa besterik ez da, ekintzetan (euskararen erabileran alegia) ez du ondorio handirik. Identitatearen ikur hau eskuratzeko, euskaraz hitz egin baino, euskara maitatzea garrantzitsuagoa da. Egindako azken ikerketa kualitatiboak hori frogatzen dute behintzat.

Lehen esan dugun bezala, normalean hizkuntzen imaginarioak mendeetan zehar eraikitzen dira, hizkuntzalarien pentsamenduaren eta hizkuntza erabilera politikoaren arabera. Politikari dagokionez, eta gizarte hizkuntzaren arauetarako dagokienez, euskara minorizatua² izan da eta horregatik, ideologia soziolinguistikoa, auto gorrotoari lotuta dago. Orain dela gutxi arte minorizazioa izan da ideologi soziolinguistikoaren ezaugarri nagusienetakoa bat Euskal Herrian. Hala eta guztiz ere, orain, beste indar batzuekin sartu da lehian, tartean euskararen normalizazioaren eta berreskurapenaren aldeko indarrak aurkitzen dira.

Alde batetik, hizkuntzaren barruko arau formalei dagokienez, euskara batuarekin, hizkuntzaren erabilera idatzia nahiko finkatuta badagoen arren, ez da ahozkoaren erabileraren kasua. Azken kasu honetan, ez dago arau finkaturik. Araua etengabe aldatzen ari da, eta elkarrizketa negoziatu behar da etengabe: eremu geografikoaren arabera (euskalkiak), pertsonaren arabera (euskaldunberri, euskaldunzaharra), identitatearen arabera, eremuaren arabera (leku honetan eta gai honi buruz ondo ikusita dago euskaraz egitea edo ez, edota normalean erabiltzen dugun hizkuntza da ala ez...), ideologi soziolinguistikoaren arabera (hizkuntza auto gorrotoari lotuta, Nazioari lotuta...), e.a.

Euskararen erabileran aldagai asko sartzen dira lehian eta erabilera zaildu egiten dute. Euskaraz hitz egiteko egin behar den negoziaketa ukatzeko, erdararen erabilera da irtenbide errazena. Normalean nahiko ezagunak dira aldagai horiek, hemen aipatu dudan azkena aurkeztuko dut: Estatu nazioa eta hizkuntza lotzen duen aldagaia.

Imaginario hau European dauden beste imaginarioei lotuta dago eta bi gizarte motari dagokie: Gemeinschaft gizarte bati: “compuesta por personas que comparten la convicción de que están ancestralmente relacionados” (Martinez de Luna, 1998: 144), edo Gesellschaft gizarte bati: “compuesta por individuos ligados por la convicción de que sus intereses se verán mejor protegidos y promovidos formando parte como miembros de esa sociedad” (Martinez de Luna, 1998: 145). Bi gizarte mota horietan, nahiz eta modu ezberdin batean lotuta egon, hizkuntza eta nazioa oso lotuta daude. Aurreneko kasuan hizkuntza eta identitate kulturala (batzuk arraza esango lukete) bat datozelako eta bestean komunikatzeko tresna preziatuena estatuaren hizkuntza delako.

² Minorizatua eta minoritarioa ez da berdina, hizkuntz bat minorizatua izan daiteke gehiengoarena izanik.

Euskal Herrian, beste Europako kasu gehienen egoera bertan aplikatzeko joera bat dago. Besteen ideologiaren kalkoa egitea eta Euskal Herrian ezartzeko joera. Hizkuntz imaginario honetan, euskara batuak protagonismo handia lortzen du, nazioa batzen eta lotzen duelako. Fenomeno hau, lehen ikusi dugun bezala hizkuntzaren garbitasunarekin bat etortzen da.

Garbizaletasunari dagokionez, nazionalismo tradizionalaren eragina ez dugu ahaztu behar. Ezaguna da S. Aranaren hizkuntz garbizaletasuna, gainera berarentzat euskararen erabilera mugak jartzeko zen, erdaldunek, *maketoek* Euskal Herriaren gizartean eraginik izan ez zezaten (Corcuera, 1979: 433).

Dena den, S. Aranaren nazionalismo arrazialista (Todorov, 1989: 212), hizkuntza kulturean eta kulturazioan duen garrantzia nabarmentzen duen ikuspuntuarekin hasieratik lehian izan zen. Campion beste imaginario honen adibide garbia da.

XX. mendeko 50. eta 60. hamarkadetan herriaren eta hizkuntzaren arteko lotura gailentzen duen ideologia zabaldu zen, Krutwigen “Vasconia. Estudio dialéctico de una nacionalidad” (Krutwig, 1963) erreferentzia bihurtuz. Sapir et Whorfen posizioak zabaldu egin ziren frogaz zientifiko moduan.

Politikak eta nazionalismoak eragin aparta izan dute euskararen hizkuntz imaginarioaren eraikuntzan; horregatik, tentsio politikoengatik eta euskararen berreskurapenerako, gaur egun, hizkuntzaren despolitizazioaren aldeko ikuspuntu bat zabaltzen ari da. Bi zatitan banatuko dugu azken ikuspuntu hau.

Alde batetik, hizkuntzak tresnak besterik ez direla esaten dutenak ditugu. Normalean, pertsona horiek euskaldunberriak dira, ez dute ondo ezagutzen euskara (zerbait ezagutzen badute) eta euskarari buruz hitz egitean azalarazten dute ikuspuntu hau. Haien erdarari buruz hitz egiten dutenean (maila teoriko bakarrik ez den maila batean hitz egiten dutenean behintzat) hizkuntzaren karga afektiboa, emozionala eta identitatearekiko lotura onartzen diote³.

Beste batean euskararen normalizaziorako hizkuntzaren despolitizazioa ezinbestekoa dela pentsatzen duten autoreak kokatzen dira. Autore batzuk, euskararen despolitizazioaren aldekoak agertzen dira, merkatu linguistiko oso bat osatzeko, derrigorrezko ezaugarria delako. Euskararen erabilera markatua ez izateko eta gizarte bat euskaraz bizi dadin, ideologi mota guztietako pertsonak, gai guztietaz hitz egiten dutenak euskaraz, beharrezkoak direlako. Aldiz, euskararen erabilera markatua bada, politizatua, merkatu linguistiko osoaren osaketa ezinezkoa da eta gaur egun oso markatua da euskararen erabilera (Joly, 2001, 2004).

³ Politika hizkuntza aztertuz gero berdina gertatzen dela konturatzen gara : nazionalistak « nacionalistas » abertzaleak dira eta neutroak direnak, ez nazionalistak, besteak, alegia erdal nazionalistak edo espainolistak. Beraz batzuk markatuak diren bitartean (euskal nazionalistak) besteak ez dira markatuak, haiek eta haien ekintzak normalak dira.

6 BORTZIRIETAKO IKERKETA SOZIOLINGUISTIKOA: DATUEN IRAKURKETA

Hizkuntza gaitasuna, ama-hizkuntza eta etxeko hizkuntza.

Hizkuntza gaitasuna, ama-hizkuntza eta etxeko hizkuntzei buruzko informazioa izateko bi iturri nagusi izan ditugu. Alde batetik, 2001ean Nafarroako Estatistika institutuak egindako errolda, eta bestetik “Bortzirietako Euskara Mankomunitatea. 2006ko plana” deitzen den dokumentua.

Hemen Bortzirietako datuen aurkezpena egingo dugu, herriko datuak aztertzea txostenen honen mugetatik kanpo geratzen da. Herriko datuak eranskinetan aurkituko dira.

Hizkuntza gaitasuna

Tipologiak:

Nafarroako erroldetan erabiltzen diren tipologiak horiek dira: euskaldun alfabetatuak, euskaldun partzialki alfabetatuak, euskaldun ez alfabetatuak, i-a euskaldun alfabetatuak ia-euskaldun ez alfabetatuak, ia-euskaldun pasiboak eta erdaldunak.

Euskararen Gaitasuna 2001

Herriak	Euskaldun alfabetiz	Euskaldun partzialki alfabetiz	Euskaldun ez alfabetiz	ia-euskaldun alfabetiz	ia-euskaldun ez alfabetiz	ia-euskaldun partzialki alfabetiz	erdalduna	Orokorrea
Arantza	322	241	51	2	30	0	1	647
Bera	1876	479	66	305	224	1	460	3411
Etxalar	335	313	40	8	39	0	27	762
Igantzi	280	196	31	9	49	0	17	582
Lesaka	1176	806	89	105	215	0	173	2564
Guztira	3989	2035	277	429	557	1	678	7966


Euskararen Gaitasuna 2001 %

Herriak	Euskaldun alfabetiz	Euskaldun partzialki alfabetiz	Euskaldun ez alfabetiz	ia-euskaldun alfabetiz	ia-euskaldun ez alfabetiz	ia-euskaldun partzialki alfabetiz	erdalduna	Orokorrea
Arantza	49,8	37,2	7,9	0,3	4,6	0,0	0,2	100
Bera	55,0	14,0	1,9	8,9	6,6	0,0	13,5	100
Etxalar	44,0	41,1	5,2	1,0	5,1	0,0	3,5	100
Igantzi	48,1	33,7	5,3	1,5	8,4	0,0	2,9	100
Lesaka	45,9	31,4	3,5	4,1	8,4	0,0	6,7	100
Guztira	50,1	25,5	3,5	5,4	7,0	0,0	8,5	100

Euskararen gaitasunari buruzko tauletan eta grafikoan argi ikusten denez, euskaldun alfabetatuak osatzen dute Bortzirietako herri guztietako talde nagusia. Bi urtetik gorako biztanleen %50,1 sartzan da talde honetan. Bigarren taldea euskaldun partzialki alfabetatuena da. Biztanleriaren % 25,5 sartzan da talde honetan. Erroldan erabilitako tipologiaren arabera, beste hiztun mota bakoitzean

biztanleriaren %10 baino gutxiago kokatzen da. Erdaldun elebakarren portzentaia txikia nabarmentzekoa da (% 8,5):


- Euskaldun ez alfabetatuak: % 3,5
- Ia euskaldun alfabetatuak: % 5,4
- Ia euskaldun ez alfabetatuak: % 7
- Erdaldunak: % 8,5



Herri guztietan tipologiaren araberako banaketa antzekoa da. Herri txikienetan erdaldunen kopurua oso txikia da, %4 baino gutxiagokoa, %0,2 izanik Arantzán. Erdaldunen portzentaia handiago da herri handienetan (Bera - %13,5- eta Lesaka - 6,7-). Euskaldunen artean euskaldun alfabetatuen ehuneko handiena ere herri horietan aurkitzen da. Izan ere, Beran euskaldunak %70,9 badira, %55 euskaldun alfabetaturik da. Konparaketan Etxalar, Igantzi eta Arantzán euskaldun alfabetatuen portzentaia euskaldunen kopuru orokorrean txikiagoa. Etxalarren adibidez euskaldun alfabetaturik %44 badira, euskaldun partzialki alfabetatuen ehunekoa ia berdina da: % 41,1ekoa.

Euskarazko irakaskuntzaren zabalkundeari esker alfabetatuen kopurua talde gazteenetan handitzen ari dela pentsatu dezakegu. Beraz alfabetatugabeen ehuneko handiena adinekoren eta helduen artean aurkituko dugu.

Tipologiak errazteko eta datuak ulerterrazagoak izateko zazpi tipologia horiek hiru tipologiatan batuko ditugu. Horretarako euskaldunen kategori ezberdinak batuko ditugu alde batetik eta bestetik ia euskaldunen kategoriak ere batuko ditugu.



Euskararen gaitasuna 2001 (3 tipologia)

Herriak	Euskaldunak	la-euskaldunak	Erdaldunak
Arantza	94,9	4,9	0,2
Bera	71,0	15,5	13,5
Etxalar	90,3	6,2	3,5
Igantzi	87,1	10,0	2,9
Lesaka	80,8	12,5	6,7
Guztira	79,1	12,4	8,5

Hiru tipologiaitan banatuta euskaldunena da Bortzirietako talde jendetsuena. Herri euskaldunena Arantza da, jarraian Etxalar eta Igantzi agertzen dira. Herri erdaldunenak handienak dira: Lesaka eta bereziki Bera. Hala ere, erdaldunen kopurua oso txikia da herri horietan ere. Bortzirietako euskaldunen ehunekoa kontutan hartuta, Euskal Herri mailan gune euskaldunenen artean kokatzen dela ziurtatu daiteke zalantzarik gabe. Erdaldun elebakarrak gutxiengo txiki bat besterik ez dira. Hala ere, kontutan hartu behar da euskaldunen dispersioa. Izan ere, euskaldunen ehuneko handi bat erabat alfabetatu gabekoa da. Europako mendebaldeko gizarte honetan alfabetatua izatea beharrezkoa izan ohi da, beraz erraz pentsa dezakegu euskaldun guzti horiek gazteleraz alfabetatuak direla. Beraz desoreka bat dago euskaldun eta erdaldunen artean: biztanleri guztia erdaraz alfabetatua bada, euskaldunen kopuru handi bat alfabetatugabea da. Erroldetan erabiltzen den tipologia argi adierazten du desoreka hori, izan ere erdaldun guztiak alfabetatuak kontsideratzen baitira, eta euskaldun guztiak erdaraz alfabetatuak kontsideratzen dira. Beste alde batetik, euskaldun guztiak erdaraz badakitela kontutan hartu behar dugu. Beraz hemen euskaldunak kontsideratzen direnak berez elebidunak dira eta askotan hobeto alfabetatuak erdaraz euskararen baino.

Euskaldunen elebitasuna kontutan hartuta ia euskaldunen kopurua azpimarratu behar da. Izan ere, hiztun horiek euskararen ezagutza urria izanik komunikatzeko orduan erdaraz erabiltzeko joera izango dute. Hala eta guztiz ere, ia euskaldunen eta erdaldunen taldean batzen baditugu ere gizartearen gutxiengo bat osatzen dute: % 20,9.

Hizkuntza gaitasunaren bilakaera

%	<i>EUSKARAZ ONGI MINTZATU. BILAKAERA.</i>			
	2001	1996	1991	1986
ARANTZA	98.9	99.0	99.3	95.7
BERA	72.8	66.7	70.5	63.4
ETXALAR	92.3	90.0	90.4	90.0
IGANTZI	92.1	92.5	95.1	93.3
LESAKA	83.3	78.8	80.1	74.7
BORTZIRIAK	81.6	77.6	79.9	74.7

Iturria: *Bortziriak euskara mankomunitatea 2006ko plana.*

Taulan ikus daitekeen moduan euskaraz ongi mintzatzen duten kopurua handitu egin da 1986tik hona. %74,7 izatetik % 81,6 izatera pasatu da. Hala ere 1991tik 2001era datuak oso gutxi aldatu dira. Beraz euskaldunen kopurua erdaldunena baino askoz handiago bada ere, datu horiek erdaldunek haien bizitza modu normal batean burutzeko inongo arazorik ez dutela pentsatu dezakegu. Beti gogoratu behar baitugu euskaldunek elebidunak direla noski. Euskarak gizarte komunikazio eremu propiorik eta ez konpartiturik ez duela pentsatzera bultzatzen gaitu horrek.


Datuen egonkortasuna ulertzeko beste hipotesi bat dago: honen arabera gizartean banaketa bat dagoela pentsatu beharko dugu eta era anisotropikoan bizi dela. Alegia erdaldunak haien artean bizi direla euskaldunekin nahastu gabe.

1996ko eta 2001eko datuak konparatzen baditugu euskararen ezagutzaren bilakaera positiboa Beran eta Lesakan gertatzen dela ikusiko dugu. Beran ongi mintzatzen dutenek %66,7 izatetik %72,8 pasatzen da eta Lesakan 78,8tik 83,3ra.

Hizkuntza gaitasuna sexuaren arabera

Hizkuntza gaitasuna sexuaren arabera

	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Euskaldunak	3274	3027
la euskaldunak	510	477
Erdaldunak	361	317
Guztira	4145	3821



Egoera diglosikoetan emakumeak izan ohi dira hizkuntza minorizatua uzten duen lehenengo taldea. Izan ere, talde ahulenek hizkuntza minorizatua uzteko ohitura izan ohi dute beste taldeek baino lehenago. Gainera, emakumeek zaintzen eta hezten zituzten umeak eta, normala denez, umeen etorkizuna ahalik eta hobereana ziurtatzeko hizkuntza prestigioetuen erakatsi ohi diete umei eta beraz hizkuntza gehiengotua gehiago irakasten da egoera diglosikoetan, hizkuntza gutxiengotuen transmisio intergenerazionala apurtuz .

Tauletan ikusten den moduan ez dago ezberdintasun esanguratsurik gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Hala ere gaurko gizartean indar batzuk lehian daude eta ezberdindu beharko lirateke. Izan ere, litekeena da herri txikietan erdara izatea hizkuntza gehiengotua diglosia historikoagatik baina kontutan hartzen badugu azken urteotan euskarak hartzen ari den garrantzia administrazioko lanpostuak lortzeko e.a., bere prestigioa handitu egin da bereziki herri handienetan. Ezagutzaren datuen bilakaera ikusita hori pentsa dezakegu baina fenomeno erabat ziurtatzeko datuak herri aztertu beharko lirateke. Datu orokorretan herri txikietan gertatzen den diglosia historikoa eta herri handietako datuak nahasten dira eta orekatzen dira esanguratsurik ez den batzuetako ezarritik. Modu berean, adinaren arabera ere ezberdintasunak egongo dira eta zaharren eta gazteen datuak emaitza orokorrak orekatzen dituzte baina azken horiek azken finean ez dira esanguratsuenak noski.

Xehetasun horietan sartzea aldiz ez da txosten honen barnean sartze, neurri berean xehetasunetan sakontzeko alfabetatuen kopuruak, herri eta genero aztertzea interesgarria izango litzateke dudarik gabe. Ikerketa kualitatiboetan interesgarria izan daiteke ere ama hizkuntza eta etxeko hizkuntza generoaren arabera aztertzea.

Ama-hizkuntza


Ama hizkuntza 2001

Ama hizkuntza	Euskara	Gaztelera	Biak	Beste bat
Arantza	626	11	10	0
Bera	2134	917	313	47
Etxalar	671	57	18	16
Igantzi	496	56	30	0
Lesaka	1929	447	176	12
Guztira	5856	1488	547	75

Ama hizkuntza 2001 %

	Euskara	Gaztelera	Biak	Beste bat
Arantza	96,8	1,7	1,5	0,0
Bera	62,6	26,9	9,2	1,4
Etxalar	88,1	7,5	2,4	2,1
Igantzi	85,2	9,6	5,2	0,0
Lesaka	75,2	17,4	6,9	0,5
Guztira	73,5	18,7	6,9	0,9

Bortzirietako biztanleriaren %73,5 euskara izan du ama hizkuntzaz 3 urte izan arte, % 18,7 gaztelera izan du, % 6,9 bi hizkuntzak eta %0,9 beste hizkuntza bat. Arantzaren (% 96,8), Etxalaren (% 88,1) eta Igantziaren (% 85,2) aurkitzen dira datu altuenak euskarari dagokionez. Beran (% 26,9) eta Lesakan (%17,49) gaztelerearen datuak beste herrietakoak baino apur bat altuagoak dira.



Mugikortasun linguistikoa

Hizkuntza baten bizi-indarra neurtzeko, giza banakoaren gaitasun linguistikoaren bilakaera urteetan zehar jasotzea interesgarria suertatzen da. Horretarako galdera jakin batzuk jartzen dira inkesta soziolinguistikoetan edo konparaketak egiten dira ama hizkuntza eta ikerketan egiten den momentuko

gaitasunen artean. Gure kasuan ez dugu datu zuzenik, beraz noranzkoak zehazteko ama hizkuntzen datu orokorrak eta ezagutzarenak konparatuko ditugu. Datuak banakoaren arabera jaso beharko lirateke, beraz hemen fidagarritasun zientifikoa urria da.

Euskara edo euskara eta gaztelera ama hizkuntzaz izan duten pertsonak Bortzirietako %80,4 dira. Orain euskaraz ondo mintzatzen dutenek aldiz, % 81,6 dira aurreko kapituluan ikusi dugun moduan. Hortaz biztanleriaren %1,2 ikasi duela euskara pentsa dezakegu. Datua fidagarria balitz altua izango litzateke Euskal Herri mailarekin konparatuta. Hala ere datua ez da izango hain baikorra seguruenik, izan ere pertsona batzuk irakaskuntzaren bitartez ikasi dute euskara eta beraz batzuk, euskara ama hizkuntza izan dutenak, urteen poderioz haien gaitasuna galdu egin dutela pentsa dezakegu.

Dena den datua altua bada Euskal Herri maila kontutan hartzen badugu, txikia da kontutan hartzen badugu gizartearen gehiengo handi bat euskalduna dela. Hortaz erdaldunak ez dute euskararen beharra sentitzen. Izan ere gizartearen %18,4k besterik ez daki euskaraz hitz egiten eta %19,6 ez du izan euskara ama hizkuntzaz.


Ama hizkuntza euskaldunen osatuen kopuruarekin konparatzen badugu aldiz, euskaldun batzuk ez direla alfabetatu euskaraz konturatuko gara. Izan ere, %80,4 izan badu euskara ama hizkuntzaz, %79,1 da euskalduna eta %50,1 besterik ez erabat alfabetatua. Gainera euskaldun berrien ehuneko handi bat eskolatik eta euskaltegietatik datorrenez alfabetatuak izaten dira, beraz euskara ama hizkuntzaz izan duten kopuru bat, zehaztu gabekoa, bere gaitasuna galdu egin duela ziurtatu daiteke. Hori helduetan eta nagusien artean gertatu dela pentsa genezake, oraingo gazteek euskaraz ikasten dutelako, dena den ikusi beharko da eskola utzi eta gero, lan munduan sartzen direnean ea haien gaitasuna gordetzen duten. Euskara lehen hizkuntza izan dutenen artean, azpimarratzekoa da alfabetagabeen kopuru handia euskaraz.

Etxeko hizkuntza


Nafarroako erroldetan eskuragarri dagoen erabilerari buruzko datu bakarra, etxeko hizkuntzari buruzkoa da. Etxean zein den gehien erabiltzen den hizkuntza galdetu zaio jendeari. Atal metodologikoan azaldu dugunez, datu horiek aitortuak dira.

	Euskara	Gaztelera	Biak	Beste bat	Guztira
Arantza	613	7	27	0	647
Bera	1422	1046	920	23	3411
Etxalar	527	73	150	12	762
Igantzi	431	59	92	0	582
Lesaka	1683	485	386	10	2564
Guztira	4676	1670	1575	45	7966

	Euskara	Gaztelera	Biak	Beste bat
Arantza	94,7	1,1	4,2	0,0
Bera	41,7	30,7	27,0	0,7
Etxalar	69,2	9,6	19,7	1,6
Igantzi	74,1	10,1	15,8	0,0
Lesaka	65,6	18,9	15,1	0,4
Guztira	58,7	21,0	19,8	0,6



Etxeko hizkuntza gisa, euskara da hizkuntza nagusia Bortzirietako herri guztietan. Arantzan, Etxalarren, Igantzin eta Lesakan nagusitasun handiz, Beran aldiz euskararen eta gaztelararen arteko aldeak txikiagoak dira. Guztira, euskara present da etxean %78,5ean, hizkuntza nagusia izanik (%58,7) edo gaztelararekin batera (%19,8). Datu horiek oso altuak dira zalantzarik gabe.



Ama hizkuntza, etxeko hizkuntza eta euskaldunen kopurua konparatzen baditugu erabileran galera bat gertatzen dela ikusiko dugu. Izan ere, euskaldun guztiek ez dute erabiltzen euskara haien etxeetan, izan ere biztanleriaren %79,1 bat bada euskalduna, %78,5 erabiltzen du euskara. Aldea txikia da, eta kontutan hartzen baditugu euskaldun berrien kopurua, zeinek etxean euskara erabiltzeko aukerarik ez dute familia ez delako euskalduna, are txikiagoa irudituko zaigu kopurua: %0,6 besterik gabe. Dena den euskaldunen artean ez ditugu sartu ia euskaldunen kopurua eta ia euskaldunen kopuru bat etxean euskara ere erabiltzen duela argi dago. Ia euskaldunen kopurua kontutan hartuta aldea dezente handitzen da: %13koa da.

Hizkuntzaren galera argiago agertzen zaigu Ama hizkuntza, alegia gaztetan eta haurra izanik etxean erabiltzen zen hizkuntza eta 2001eko etxeko erabilera. Aldea %1,9koa da. Ez da handia, baina egoera soziolinguistikoa zein den ulertzeko adierazgarria da. Hipotesi moduan, baina hipotesi bat besterik ez da, galera adin talde zaharretan gertatu dela suposatu daiteke. Hipotesi hau kontutan hartuta ere, gaurko belaunaldi gazteenekin gauza bera ez dela gertatuko ezin da ziurtatu.

Euskararen Kale erabilera

Euskararen kale erabilera

Atal honetan Bortzirietako Kale Erabileraren datuak aurkeztuko ditugu. Euskararen kale neurketak 1994tik egiten dira Bortzirietan eta azken neurketa 2006an egin da. 2006ko datuak ez ditugunez oraindik 2003ko datuak aurkeztuko dira hemen. Datuen eta taulen iturri nagusia 2003ko txostena izan da kasu gehienetan, kasu batzuetan Bortzirietako 2006ko plana izan da.

<i>KALE ERABILERA 2003</i>						
	ARANTZA	BERA	ETXALAR	IGANTZI	LESAKA	BORTZIRIAK
EUSKARAZ	86,4	46,8	55,4	66,9	51,1	60,1
GAZTELANIAZ	13,6	53,2	44,6	33,1	49,9	39,9

Bortzirietan behatu den erabilera maila oso altua da, izan ere, elkarrizketen %60,1 euskaraz burutzen ziren 2001ean, erdarazko kopurua %39,9 izanik. Euskal Herriko batz besteko maila kontutan hartuta oso datu altua da Bortzirietakoa. Herrika, Arantzan jaso da kopuru altuena (%86,4), 20 puntu beherago Igantzi aurkitzen da (%66,9), 30 puntu inguruan beherago Etxalar (%55,4) eta Lesaka (%51,1). 40 puntu beherago Bera dugu. Bera da Bortzirietako herri bakarra non erdara den nagusitzen den hizkuntza, Beran jasotako elkarrizketen %53,2 erdaraz jaso ziren eta %46,8 aldiz euskaraz.


Bera Bortzirietako herri handiena dela kontutan hartu behar dugu. Izan ere proportzioan garrantzia handiagoa dauka beste herriekin konparatuta. Herri handienetan jasotzen direlako zerbitzu batzuk eta beraz herri txikietatik ateratzen direnean, euskaldunek erdara erabiltzeko beharra izan dezakete. Bestetik herri handienak erdua izaten dira eta prestigioa izaten dutenez, hizkuntza ohituretan eragin handia izaten dute. Datu horrek erdara gehiengotua dela frogatzen du eta Bortzirietan egoera diglosiko batean aurkitzen dela pentsatzera bultzatzen gaitu: ezagutzan euskara nagusia izanik, erdara prestigio gehien duen hizkuntza baita.

Kale erabileraren bilakaera Bortzirietan

<i>EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA BORTZIRETAN</i>						
	1994	1995	1997	1999	2001	2003
EUSKARAZ	61	66	69	62	63	60

1994tik sei kale neurketa egin dira Bortzirietan. 1994 eta 2003ko datuen artean ez da ia bilakaerarik aurkitzen. Puntu bat jauzi da euskararen erabilera Bortzirietan besterik ez, 10 urtetan ez da datu esanguratsua. Hala ere, bitartean neurtutako datuak kontutan hartzen baditugu bi joera kontrajarriak aurkitzen ditugu. Bilakaera baikorra izan zen 1994tik 1997ra, baina 1999tik datuen bilakaera negatiboa da. 1999 eta 2001ean antzeko datuak jaso ziren (%62 eta %63) eta 2001etik 2003ra datuak hiru puntu egin dute behera. Berez ez dira aldaketa handiak erabileraren tasa kontutan hartuz, baina bilakaeraren joera azken urteetan negatiboa da eta 1997tik 9 puntu galdu izana datu esanguratsua da.

Kale erabileraren bilakaera Bortzirietan



Adin taldekako kale erabileraren bilakaera Bortzirietan


<i>ERABILERAREN BILAKAERA ADIN TALDEKA BORTZIRIETAN</i>				
	HAURRAK	GAZTEAK	HELDUAK	ZAHARRAK
1994	74	47	54	78
1995	86	60	51	69
1997	89	62	51	84
1999	67	57	57	72
2001	82	60	46	53
2003	82	67	45	60

Euskara gehien erabiltzen dutenek Bortzirietan haurrak dira (%82), hori ez da aritzekoa hurrek euskararen erabilera zein neurritan eragiten duten kontutan hartzen bada, hurrengo atalean ikusiko dugun moduan.

Haurren atzetik, 15 puntura, gazteak aurkitzen dira, haien artean euskararen erabilera %67koa da. Ondoren adinekoak ditugu %60ko erabilerarekin, hurrengandik 22 puntura. Euskara gutxien erabiltzen duen taldea helduena da. Adin talde honetan erdararen erabilera maila euskararena baino altuagoa da. Erdara euskara baino gehiago erabiltzen duen talde bakarra da. Eskema hau egoera

diglosiko arruntarena da. Izan ere, hizkuntza gutxitua haurren eta zaharren hizkuntza baita. Helduen hizkuntza, eta beraz lan egiteko balio duena, eredia dena eta prestigiotua dena erdara da. Hala ere, normalizazioaren ukitua aurkitzen da datu horietan: hezkuntzari esker gazteen artean ere euskararen erabilera altua da ezagutza hedatuagoa delako gazteen artean helduetan eta adinekoetan baino eta beraz litekeena da euskararen prestigioa altuagoa izatea gazteen eta haurren artean helduen eta bereziki adinekoen artean baino. Dena den azken iruzkin hau hipotesi moduan utzi beharko dugu.


Erabilera bilakaera adin taldeka (1994-2003)



Datuen bilakaerari kasu eginez gero, haurretan datuak nahiko egonkorak dira, gazteetan aldiz bilakaera baikorra dago 1999tik. Datuen bilakaera negatiboa helduen artean aldiz kezkatzeko modukoa da: 10 urtetan 10 puntuz egin du bera euskararen erabilera helduen adin taldean. Datu oso negatiboa da, izan ere helduak izaten baitira gazteen eta haurren eredia eta iparra. Erdararen beharra eta nagusitasuna adierazten du horrek lan egiteko, prestigioari dagokionez ere eta erabilera eta ezagutza eremuetan ere. Beraz gure aburuz orain arte lan asko egin bada gazteei begira euskararen erabilera bultzatuz, ezinbestekoa iruditzen zaigu euskararen erabilera bultzatzea helduen artean eta bereziki herri handienetan. Aurrera begira inmigranteen eragina datuetan kontutan hartu beharko da. 2006ko kale erabilera egin arte ez zen daturik jaso inmigranteen erabilerari buruz. Beraz orain arte inmigranteak izan duten eragina ezin izan dugu neurtu. Dena den, 2003an izan zezaketen eragina mugatua zen oso, baina hori ziurtatzeko Bortzirietako datu demografikoen bilakaera aztertu beharko litzateke.

Haurren presentziaren eragina erabileran

Haurren presentziaren eragina erabileran




Euskal Herri osoan haurren presentziak asko baldintzatzen du hizkuntzen hautaketa. Izan ere, askoz gehiago erabiltzen da euskara elkarrizketan haur bat present bada. Bortzirietan elkarrizketan haurrik ez bada, erdara izaten da nagusi taulan ikusi dezakegun moduan, aldiz haur bat present izanik euskararen nagusitasuna handia da: erdararen erabilera baino 55 puntu altuagoa baita.

Horrek transmisioa asko zaintzen dela adierazten du, baina euskararen eremua haurrei lotuta dagoela ere adierazten du eta horrek baldintzatzen du imaginario linguistikoa, eta euskara haurren hizkuntza bihurtzen da. Euskararen aldeko indar ideologikoa handia eta baikorra segitzen den bitartean bilakaera positiboa izango da baina gizartean beharrik ez bada sentitzen eta indar ideologikoa jaisten bada euskararen transmisioa oraingo neurri horietan ez egiteko arriskua dago. Datu horiek erakusten dute euskararen eremu pribatua zein den: haurrena eta bereziki transmisioarena.

Hizkuntza gaitasuna eta euskararen kale erabilera Bortzirietan

Hizkuntza gaitasuna eta euskararen kale erabilera Bortzirietan




Euskararen kaleko erabilera, euskararen ezagutza aitortua baino 21,5 puntu txikiagoa da. Euskaldun guztiak elebidunak direla kontutan harturik ez da datu txarra. Kezkatzekoa da aldiz azken urte horietan, 1996tik 2001era euskararen ezagutzaren tasak handitzen diren bitartean, euskararen erabilera jaistea. 1996an ezagutza %77,6koa eta erabilera %63koa ba ziren, 2003an ezagutza 81,6ra igo zen eta erabilera aldiz 60,1era jaitsi zen. Aurrera begira ondo zaindu beharko dira bilakaera horiek. Horrek euskararen erabilera helduen artean eta lan eremuan bultzatu behar dela pentsatzera eramaten gaitu, haurrekin oso altua baita euskararen erabilera. 2006ko datuetan ikusi beharko da ea haurren arteko erabilera haurren eta nagusien artekoa bezain altua den.

<i>EZAGUTZA ETA ERABILERA PAREZ PARE</i>			
EZAGUTZA		ERABILERA	
1996	2001	2001	2003
77,6	81,6	63	60,1

Herrika, erabileraren eta ezagutzaren arteko alde nagusia Etxalarren (34,9 puntuko aldea) eta herri handietan aurkitzen da: Bera (24,2 puntuko aldea) eta Lesakan (29,7 puntuko aldea). Hori normala da herri handienetan erdaldunak gehiago daudelako, elkarrizketetan erdaldun bat izateko aukera gehiago dago. Modu berean, Arantzian aurkitzen da alde txikiena, biztanleriaren ia osoa euskalduna delako. Arantza ezagutza eta erabileraren arteko aldea %8,5koa besterik ez da.

	Euskaldunak	Kaleko erabilera	Aldea
Arantza	94,9	86,4	8,5
Bera	71	46,8	24,2
Etxalar	90,3	55,4	34,9
Igantzi	87,1	66,9	20,2
Lesaka	80,8	51,1	29,7
Guztira	79,1	60,1	19




Etxeko hizkuntza aitortua eta kalean behatutako erabilera


Jakina denez, kale neurketen metodologia ezin da erabili etxeko hizkuntza neurtzeko, datu aitortuen eta behatuen arteko aldea zein den jakiteko balioko luke horrek, baina etxeko erabilera ezin da zuzenean behatu.

Erroldan aitortutako etxeko euskararen erabilera eta kale neurketetan behatutako erabilera konparatuko ditugu hemen. Etxeko erabilera aitortua (%78,5) kalean behatutakoa (%60,1) baino 18,4

puntu altuagoa da. Irudipenak eragina izaten dute aitortutako datuetan, beraz kalean jasotakoa bezain fidagarriak ez direla pentsatu daiteke.



Hala ere, aldea egoera diglosiko batean ulergarria da. Izan ere, ezagutzatik erabilerara jauzi bat eta galera bat badago taulan adierazten den bezala eta aurreko atalean ikusi dugun moduan, erabilera eremuen artean normala izaten da ere jauzi bat eta galera bat izatea. Alegia, ezagutzen duen baino jende gutxiagok erabiltzen du euskara. Gainera egoera diglosikoetan erabilera eremua zenbat eta formalagoa izan zenbat eta etxeko txokotik zenbat eta urrunago izan orduan eta murriztagoa izango da euskararen erabilera. Hori da behintzat maneiatu dezakegun hipotesia. Ereku formalak aipatzen dugunean, gaur egun hezkuntzaren eremua salbuespena izango litzateke.




Irakaskuntzaren datuak

Bortzirietako irakaskuntzaren matrikulazio datuak aurkeztuko ditugu hemen. Datuen iturria irakaskuntzari buruzko txostena izan da: “Bortzirietako Matrikulazio Datuak 2004-2005 Ikasturtea”. 2004-2005eko datuak aipatu ez ezik bilakaerak ere ikusiko ditugu.

Hizkuntza ereduaren bilakaera urtez urte Bortzirietan (HH, LH, DBH)

Hizkuntza ereduaren bilakaera Bortzirietan (1996-2005)

%	A	B	D
96-97	13.6	11.8	74.5
97-98	12.0	11.2	76.8
98-99	10.0	11.3	78.7
99-00	6.3	11.8	81.9
00-01	6.9	10.2	82.9
01-02	3.4	11.0	85.6
02-03	2.5	10.4	87.1
03-04	3.3	10.5	86.2
04-05	3.6	10.8	85.6



1996tik 2005 arteko datu orokorrei erreparatzen badiegu bi fase ezberdinak aurkituko ditugu. Alde batetik D ereduaren edapena gertatzen da 1996tik 2002-2003ko ikasturte arte. Sei urte horietan ia 13 puntuz igo da D ereduaren kopurua. Baina azken bi ikasturteetan D ereduaren bilakaera negatiboa izan da, 1,5 puntu jaitsiz. Ez da jaitsiera handia baina horrek A eta B ereduaren egonkortzea adierazten du, alegia, nahiz eta txikia izan B eta A ereduaren portzentaia ez du desagertzeko joerarik eta alderantziz gutxieneko portzentaje bat du %14 inguruan. Portzentaje hau da hain zuzen ere Bortzirietako erdaldunen kopuru osoa (% 8,5) baino handiagoa.

Ikas mailaren arabera: haur hezkuntza

Haur Hezkuntzako matrikulazioen bilakaera (1996-2005)


%	A	B	D
96-97	0.0	15.8	84.1
97-98	0.0	14.1	85.9
98-99	2.3	12.3	85.4
99-00	3.3	9.3	87.4
00-01	3.4	7.9	88.7
01-02	2.4	10.0	87.6
02-03	3.4	12.6	84.0
03-04	4.9	11.7	83.4
04-05	3.5	11.4	85.1

Oso egonkorak dira ditugun datuak, bederatzi urtetan puntu 1 egin dute gora D eredu matrikulazioak Haur hezkuntzan. A eredu datuak %3,5 inguruan egonkorak dira ere, B ereduaren bilakaera aldiz zerbait negatiboa izan da. B eta A ereduak kontutan hartzen baditugu Bortzirietako erdaldunen kopurua baino altuagoa da.

Ikas mailaren arabera: Lehen hezkuntza

Lehen Hezkuntzako matrikulazioen bilakaera (1996-2005)

%	A	B	D
96-97	4.6	15.7	79.6
97-98	2.1	14.5	83.4
98-99	0.7	13.5	85.7
99-00	1.2	13.5	85.3
00-01	1.3	12.2	86.5
01-02	2.6	11.7	85.7
02-03	3.0	11.0	86.0
03-04	2.8	9,5	87.7
04-05	4.1	10.3	85.6




Lehen hezkuntzan D ereduaren bilakaera positiboa izan da. 1996-97ko ikasturtean gazteen %79,6 matrikulatuta bazen D ereduari 9 urte geroago %85,6 dira eredu honetan matrikulatuak, 6 puntu gehiago beraz. D ereduaren bilakaera positiboa B ereduaren jaitsieragatik gertatu da, izan ere B ereduko matrikulazioak %5,4 jaisten dira 9 urte horietan eta A ereduaren egonkor mantentzen da %0,4 puntu galduz.

Ikas mailaren arabera: DBH

DBHko matrikulazioen bilakaera (1996-2005)

%	A	B	D
96-97	34.5	3.9	61.5
97-98	29.7	5.9	64.4
98-99	24.4	8.2	67.3
99-00	14.6	10.8	74.6
00-01	6.2	12.0	81.8
01-02	5.2	10.7	84.1
02-03	1.6	10.8	87.4
03-04	2.8	10.8	86.4
04-05	3.3	11.9	84.8



D ereduaren bilakaera positiboa oso nabarmena da DBH mailan. 1996-97tik 2004-05ra arte 23,3 puntu egin du gora gazteen matrikulazioa D ereduari. 2002-03 arte D ereduaren bilakaera positiboa izan bada, azken bi urte horietan 2003-04 eta 2004-05ean matrikulazioen portzentaia behera egin du apur bat. B ereduaren datuak 2000an %10ean jarri ziren eta geroztik honen inguruan egonkor geratu dira, 2004-2005 ikasturtean %11,9 izanik. D eta B ereduaren bilakaera positiboa A ereduaren galeragatik gertatu da. Izan ere 1996-97tik 2004-05 bitartean 31,2 puntuz egin du behera A ereduaren portzentaia. Dena den 2002-03tik gorantz doa A ereduko matrikulazioa DBHen eta 2004-05ean %3,3an kokatuta zegoen.

Ikasmaila guztietan ikusi dugunez ez dago A ereduaren desagertzeko joerarik, hori diglosiaren adierazlea da Bortzirietako ingurune demolinguistikoan non euskaldunen kopurua erdaldun elebarrarena baino askoz handiagoa den. A ereduaren egonkortasuna (eta azken bi urteetan indarra hartzen ari da) ulertzeko bi hipotesi maneiaturiko ditugu. Alde batetik, euskaldun batzuk haien umeak elebidundu eta beraz erdaldundu nahi dituzte, etxean eta haien inguruan euskaraz bizi direnez eskola da euskaldun horien aburuz haien haurrak erdalduntzeko modu bakarra. Kasu honetan ondo adierazi behar zaie euskaldun horiei indar linguistikoagatik haurrek ez dute inongo arazorik izango erdara

ikasteko, ikerketa batzuk egin ziren honen inguruan Gipuzkoan. Beraz plangintzaren helburu bat izan daiteke euskaldun horiek kontzientziatzea.

Bigarren hipotesia aurrekoa baino zuzenagoa da gure ustez. Hipotesi honen arabera, Bortzirietako biztanleriaren zati bat, txikia baina finkoa %5-10 inguruan erdaraz bizi nahi du edo ez du euskararen beharrik sentitzen. ikerlan honetan zehar talde hori agertu da behin eta berriro (ezagutza datuetan erabilera datuetan e.a.).

Helduen euskalduntze alfabetatzea

A. C. Bortzirietako Euskaltea emandako informe laburraren arabera Bortzirietako euskaltegiaren ikasle guztien artetik %40 euskaraz ezer jakin gabe hasten da euskara ikasten. Beste %60 aldiz alfabetatzera etortzen direnak dira edo EGA ateratzera. Ikasle guztiak kontutan hartuta, %75k EGA gainditzen du, %15ak ez du gainditzen eta %5ak euskara ikasteari uzten dio.

“O”tik hasi diren ikasleetatik %20 euskaldun izatera ailegatzen da horretan batez beste 7 urte emanda euskara ikasten. Datu hau oso kezagarria da eta Bortzirietako egoera diglosikoaren adierazle nabarmena da. Izan ere, nagusiki elebiduna eta euskalduna den gizarte batean euskara ikasten saiatzen direnen artean %20k bakarrik lortzen du euskara ikasten, horrek esan nahi du %80koa dela ikasleen galera. Gizarte mailan euskararen presentzia erdaldunen aurrean oso txikia dela adierazten du horrek edo euskaltegiaren eta kaleko hizkeraren artean aldea handiegia dela adierazten du. Beste aldetik zazpi urte behar izatea ere oso tarte luzea da eta gure aurreko bi hipotesiak berrezten ditu horrek.

Helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko berebiziko garrantzia dute euskaltegiek. Bortzirietako ingurunean euskaltegien papera jendea alfabetatzeko berezia da. Izan ere gizartearen gehiena euskalduna bada eta euskaraz ongi hitz egiten badu ere (%81,6), irakurtzeko (%58,7) eta idazteko (%50,3) gai direnak askoz gutxiago dira aldiz. Gizarteari ondo ulertu behar zaio ahalmena gauzak eginez eta ekintzaren bitartez lantzen dela. Beraz irakurtzeko ahalmena irakurriz lantzen da. Horregatik Bortzirietako datuak ikusita, gizartea euskaraz alfabetatzearen eta irakurtzearen aldeko kanpainak egin beharko lirakeela pentsa dezakegu.

Bortziritako agenda 21. Encuesta de percepción ciudadana

2005ean TERRA-PROMETEA argitaratutako lan soziologiko honetan euskarari buruzko datu batzuk agertzen dira. Esate baterako inkestatuak Bortziritako mankomunitatearen euskara zerbitzua ea ezagutzen duten, asebetetze maila batzuk proposatuz geroxeago. Galdetegiaren 2., 3., 5. eta 6. galderetan agertzen dira euskararen inguruko galderak bereziki. Inkesta honetan jarrerak dira aztertzen direnak.

Inkestaren bigarren galderan Bortziritako euskara zerbitzua ea ezagutzen duten ala ez galdetu zaie inkestatuei. Ezagutuz gero zerbitzuarekiko asebetetze maila galdetu zaie.

Inkestatuen % 53,7k ezagutzen du Bortziritako euskara zerbitzua eta horietatik % 11,2 oso gustura dago egiten den lanarekin, % 70,8 gustura dago egindako lanarekin, % 15,5 ez dago pozik eta % 2,5 ez dago batere pozik egindako lanarekin. Bortziritako euskara zerbitzua nahiko ezaguna da beraz biztanleen artean eta ezagutzen dutenen, eta beraz normalean erabili dutenen gehiengo handi bat pozik edo oso pozik dago egindako lanarekin.

Hirugarren galderan euskararen tratamendua administrazioan ea onargarria den edo ez galdetu zaio jendeari. Biztanleriaren % 60 ez dago konforme euskarak jasotzen duen trataerarekin administrazioan. Datua aurreko datuarekin ez dator bat baina behar bada inkestatu batzuk administrazioa modu orokorrean ulertu dutela pentsa genezake. Euskararen trataeraren kalitateari aldiz 10 puntuko eskala batean, 4,5 puntuan jartzen dute. Datu horien arabera, Bortziritako gizartetik euskararen aldeko eskaria dagoela esan dezakegu.

Bosgarren galderan Bortziritako arazo handiena zein den galdetu zaio jendeari. Inkestatuen % 1,2k euskararen erabilera dela arazo handiena esan dute.


Seigarren galderan aurrera begira ekintza politikoak zeintzuk izan beharko liratekeen galdetu zaie inkestatuei eta beraz lehentasunezko gaiak zeintzuk diren, euskara ez zen sartu aukeren artean, datu interesgarria izango zen dudarik gabe.

Merkataritzari buruzko azterketa (SIADECO)

Euskara merkataritzara planaren barruan “Bortzirietako merkataritza establezimenduetan euskararen erabilera sustatzeko egitasmoa” deitutako txostena osatu zuen SIADECOK 1998an. Txosten honetan merkataritza establezimenduetako hizkuntza egoera, bilakaera eta lortutako emaitzak azaltzen dira. Sektore estrategikoa da merkataritzarena hizkuntza baten normalizaziorako, izan ere gizartearen egunerokotasunean presentzia handiko arloa baita alde batetik eta bestetik hizkuntzaren normalizazioa lan tresna moduan adierazten baitu.

Ageriko elementu eta idazkien hizkuntza egoera % (1998)

	Euskaraz edo gehienbat euskaraz	Elebidunak	Erdaraz edo gehienbat erdaraz
Kanpoko errotulu nagusia (1)	33,9	14	37,2
Erakusleihoa (2)	21,7	21,7	56,5
Poitsak/paperak (3)	20	17,8	62,2
Ordutegia (4)	54,5	25,8	19,7
Menuak (5)	15,8	36,8	47,4
Merkeladiko kartelak (6)	63,6		36,4
Idazki propioak (7)	29,2	36,5	34,1
Denda Kateko idazkiak (8)	8,3	12,5	75
Merkataritza iragarki orokorrak (9)	12,8	17	70,2



1998ko txosten honen arabera, Ageriko elementu eta idazkien hizkuntza gehienbat erdaraz ziren. Euskararen nagusitasuna ordutegian (%54,5) eta merkealdiko karteletan (%63,6) agertzen da soilik. Menuen %47,4k erdaraz izatea, %15,8 soilik euskaraz izatea eta erakusleihoen %56,5 erdaraz izatea euskararen lekua zein den egunerokotasunean adierazten du. Datuak hala ere 1998koak dira eta 2006ko egoera ezagutu beharko litzateke gaurko egoera zein den jakiteko.

Jarrerak Bortziritetan (Taller de Sociología)

1999an Taller de Sociología S.L-k, Baztango, Malerrekako eta Bortziritako azterketa soziolinguistikoa egin zuen, mankomunitate horiek eskatuta. Ikerlanaren helburua eskualde horretako biztanleek euskararen inguruan dituzten beharrak, iritziak, jarrerak eta horien guztien ondoriozko jokabideak ezagutzea izan da.

Metodologiaren aldetik, ikerlanak bi lan-ildo nagusi izan zituen: batetik, taldeko praktiken bitartez, hainbat talderen diskurtsoetan ageri diren motibazio eta jarrera elementuak aztertu ziren. Bestetik galdetegi bidezko elkarrizketa pertsonalen bitartez eskola adineko gazteen kolektiboa eta helduena aztertu zen.

Taller de Sociologiaren lana oso interesgarria iruditzen zaigu eta datu anitz ematen ditu. Dena den ikerketa honetatik kanpo geratzen da Taller de Sociologiaren aurkezpen sakon bat egitea. Hemen Taller de Sociologiaren lanaren ondorio soziolinguistikoa nagusiak aurkeztuko ditugu. “Bortziritako euskara mankomunitateraren 2006ko plana” txostenean agertzen diren ondorioak ere bilduko ditugu.

“Bortziritako euskara mankomunitateraren 2006ko plana” txostenean agertzen diren ondorio nagusiak zazpi dira:

- Oro har herritarrek euskararen galerari aurre egin zaiola uste dute, eta garrantzitsua iruditzen zaie euskaraz alfabetatuak direnen kopurua igo izana, euskararen kalitatean gibelera pausua eman dela argi ikusten badute ere.
- Euskararen erabileran eragiten duten faktoreen artean ohituren pisua behin eta berriz nabarmendu dute eta ohiturak aldatzeko motibazio eta kontzientziario maila handia behar dela azpimarratu dute.
- Administrazioan, osasun alorrean, merkataritzan, lan munduan... euskararen normalizazioa bideratzeko egin diren urratsak eskasak iruditzen zaizkie.
- Osasun alorreko langileek euskaraz jakitea lehentasunezkoa iruditzen zaie, batez ere gaixoen komunikatzeko beharrak asetzeko.
- Irakaskuntzari dagokionez, kezka handia agertu da DBH bukatu ondorengo euskarazko eskaintza urria delakoz. Bereziki Nafarroako Unibertsitate Publikoa aipatu dute.
- Erdaldunek euskararekiko duten diskurtsoari dagokionez, euskara beharrezkoa ez den gizarte batean ikasteko motibazio handia behar dela diote eta, hala, bertzelako lehentasunak gailentzen zaizkie. Horrekin batera, euskara ez ikasteko argudioen artean hizkuntzaren zailtasuna eta adina behin eta berriz aipatzen dituzten faktoreak dira.
- Familia euskaldunetan eta, batik bat, ezkontide/bikote euskaldunen artean, nabaria da gaztelaniak duen nagusitasuna.

“Bortziritako euskara mankomunitateraren 2006ko plana” txostenean agertzen diren ondorioez gain, ikerketa kualitatiboan, maila soziolinguistikoan azpimarratu behar diren beste puntu garrantzitsuak ondoko horiek dira:

➤ Behatuen arabera trantsiziozko gizarte batean gaude, gizarte tradizionaletik modernorantz goaz. Nekazaritza industriara pasatzen ari dena eta publikotik pribatura (azken horrek dituen ondorio guztiekin) (19 or.)

➤ Inkestatuen arabera euskara berpizten ari da irakaskuntzari esker. Maila kuantitatiboa azpimarratzen bada euskaren kalitatea eta euskalkien erabilera jaisten ari dela inkestatuen arabera. (20. or.)

➤ Inkestatuen arabera, iritziak euskararen aldekoak direnez dagoeneko, etorkizunari begira jokamoldeak dira aldatu behar direnak.(21. or.)

➤ Inkestatuen arabera, hiria erakargarria da kontsumo eta aisialdirako, herria aldiz lasaitasuna eta ongizatea izateko. (22. or.)

➤ Kaleak gazteen eremua izateari utzi dio (25. or.)

➤ Modernitateak hainbat aldaketa ekarri ditu:

“Kultura tradizionalaren ordenan eta egonkortasunean oinarrituriko gizarte baten ondotik, gizarte irekiago bat etorri da, behin-behinekotasunean oinarritua, gizarte talde guztiei aldaketa ekarri diena, hala bizi estiloari dagokionez, nola pentsamoldeetan...” (30. or.)

➤ Euskararen paisaiari dagokionez, euskaraz bizitzea ia ezinezkoa dela aipatzen dute inkestatuek. Arantza mitifikatua agertzen da alde honetatik (35. or.)

➤ Ohiturak berebiziko garrantzia dute erdararen erabileran eta oso zailak dira aldatzeko (35. or.)

➤ 36. orrialdean auto-odiren eta diglosiaren oinarriak aipatzen dituzte inkestatuek: euskaldunak euskara erabiltzeagatik lotsarazteko teknikak e.a.

➤ Gazteak hizkuntza erabiltzeko kontzientzia gehiago dute (37. or)

➤ Gurasoek seme-alaben eskuetan usten dute euskararen giroa, konpromisoa (37. or.9

➤ Batuaren prestigio azpimarratzen da: nagusien arabera, seme-alabek hobeto hitz egiten dute batuera dakitelako (37. or.)

➤ Erdararen prestigioa handia da oraindik. 838. or)

➤Erdaldunei dagokienez, euskara ikasteko beharra ez dute sentitzen, eta haien arabera ez dago inongo konfliktorik hizkuntzaren inguruan.

Ikerketa kuantitatiboan, maila soziolinguistikoan azpimarratu behar diren puntuak ondoko horiek dira:

➤Guraso euskaldunen %18,5 erdaraz hitz egiten dute haien artean.(79. or.)

- Euskararen erabilera altuagoa da anai-arrebekin (%56,2) eta bereziki aitona-amonekin (%62,3) gurasoekin baino (83. or.)
- gizonezkoek gehiago pasatzen diete euskara haien umeei emakumezkoek baino: %52,9 erabiltzen du euskara aitarekin eta %45,3 amarekin: 7,6 puntuko aldea dago. (83. or.)
- Eskolan giroa zenbat eta informalagoa izan orduan eta altuagoa da erdararen erabilera: Irakaslearekin %56,7k erabiltzen euskara beti, Ikaskideekin gelan %55,9, ikaskideekin patioan edo kalean %50,3 eta koadrilako lagunekin %49,3.
- 15-17 urte artekoen artean erdararen aldeko jauzi handia gertatzen da. 14 urte baino gutxiago dutenek gehiago erabiltzen dute euskara, nabarmen. (84. or.)

7 BORTZIRIETAKO EGOERA DIGLOSIKOAREN AZTERKETA

Aurreko atalean Bortzirietako datu demolinguistiko eta soziolinguistikoak aurkeztu ditugu, datuak azalduz eta errealitatea hainbat ikuspuntutik begiratuz deseraikitze prozesu bat burutu dugu. Oraingo honetan ber-eraikitze prozesu bat abiatuko dugu, datuak haien orokortasunean azalduz Bortzirietako egoera elebiduna eta diglosikoa zein den azaltzeko.

Bortzirietako egoerak egoera diglosiko arrunta baten kutsuak ditu aurreko kapituluan ikusi den moduan:

Gizartearen arabera trantsiziozko gizarte batean gaude, gizarte tradizionaletik modernora doana. Modernoa dena herri handienetan aurkitzen da, izan ere, hiriak erakargarriak dira kontsumorako eta aisialdirako. Hiriak ereduak dira beraz, baina ezagutza eta erabilera datuetan ikusi dugunez, herri handienetan aurkitzen da erdaldunen kopuru handiena. Bortzirietan, Beran eta Lesakan ezagutza eta erabileraren arteko aldea oso handia da. Beraz eredu hiriak edo herri handienak badira, bertan gehien erabiltzen den hizkuntza da erduzkoa, erdara beraz.

Hizkuntzaren gaitasuna egonkor mantentzen da azken urteetan zehar, euskararen ezagutza hedatzen ari da apurka apurka, baina datu guztien arabera (Erabilera, ezagutza, hezkuntza ereduak e.a.) ba da gizartearen zati bat, oso txikia baina adierazgarria, erdalduna dena eta euskararen beharrik sentitzen ez duena. Pertsona horiek hizkuntzaren inguruan gatazkarik ez dagoela pentsatzen dute.

Ezagutzari dagokionez ez dago alderik Bortzirietan emakumezkoen eta gizonezkoen artean, hala ere, erabileran bai. Aurreko kapituluan azaldu dugun moduan, egoera diglosikoetan emakumeena izan ohi da hizkuntza minorizatua uzten duen lehenengo taldea. Izan ere, talde ahulenek hizkuntza minorizatua uzteko ohitura beste taldeek baino lehenago izan ohi dute, balore eta hizkuntza prestigiotua eskuratzeko. Gainera, emakumeek zaintzen eta hezten zituzten umeak eta, normala denez, umeen etorkizuna ahalik eta hobereana ziurtatzeko hizkuntza prestigiotuena erakatsi ohi diete umei eta beraz hizkuntza gehiengotua.

Euskararen kale erabileraren arabera, emakumezkoak 10 puntu gutxiago erabiltzen dute euskara gizonezkoek baino. Taller de Sociologiaren ikerketan ikusi dugu ere nola euskara gehiago erabiltzen den aitarekin amarekin baino. Dena den azken belaunetan tendentzia ezberdina da, eta beraz hizkuntza prestigiotua aldatzen ari dela ematen du. Behintzat euskarari leku bat, balio bat eransten zaio seguruenik eskolan egoteagatik. Bide honetatik kale neurketen arabera, haurren eta gazteen artean emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago erabiltzen dute euskara (% 6,7 puntu – 2001eko kale neurketa).

Euskara, gutxiengotua izanik, bere hiztunen kopurua jaisten joan da urteen poderioz, eta euskaldun batzuk euskara ama hizkuntza izan zutenek haien gaitasuna galdu egin dute. Orain, hezkuntzari esker ez da gertatzen fenomeno hau azken belaunaldiekin, dena den gazte horiek haien gaitasuna ea ez duten galtzen heldua edo nagusia izanik ikusi beharko da. Beraz mugikortasun linguistikoa ezagutzan euskararen alde bada azken urteetan, erabilera mailan erdararen alde dago nabarmen.

Euskararen erabilerari dagokionez, euskararen ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea handia da, 21,5 puntukoa. Helduen artean azken 10 urtetan euskararen erabilera 10 puntuz jaitsi izana datu kaskagarria da. Oso baikorra da aldiz gazteen eta haurren artean egiten den erabilera.

Bortzirietan behatutako erabilera datuak adin taldeka aztertzen baditugu, egoera diglosiko arrunta baten aurrean aurkitzen garela konturatuko gara. Izan ere, hizkuntza gutxitua haurren eta zaharren hizkuntza da. Helduen hizkuntza, eta beraz lan egitekoa eta eredu prestigiotua dena erdara da. Hala ere, normalizazioaren ukitua aurkitzen da datu horietan: hezkuntzari esker gazteen artean ere euskararen erabilera altua da ezagutza hedatuagoa delako gazteen artean helduetan eta adinekoetan baino eta euskararen prestigioa altuagoa delako adin talde honetan helduenean eta adinekoenean baino.

Haurren presentziaren eragina erabileran oso altua da. Horrek euskararen belaunaldien arteko transmisioa handia dela erakusten du. Oso datu positiboa da, dena den horrek euskarari irudi bat lotzen zaio: haurren hizkuntza izatearen irudia hain zuzen ere. Hori arriskutsua da zeren eta haurra gaztea izanik eta nagusia sentitzen bada erdara erabiltzeko joera izango du. Datuak hori frogatzen dute gainera. 14 urte baino gutxiagokoek nabarmen gehiago erabiltzen dute euskara 15-17 urteko gazteek baino. Euskararen erabilera eremu pribatu bakarra hizkuntzaren transmisioa da (ikerketa honetan behatu diren eremuen artean behintzat, beste batzuk ere izan daitezke baina ikerketa honetan ez dira behatu: normalenak: ehiza, familia elkartzan denean...)

Euskararen erabilpen eremu pribilegiatua etxea da. Etxetik kanpo gutxiago erabiltzen da (ikus etxeko eta kaleko erabilera datuak). Euskararen bigarren eremu nagusia eskolaren esparru formala da. Eskolako esparrua zenbat eta informalagoa izan orduan eta gutxiago erabiltzen da euskara. Orain arte aztertutako datuak egoera diglosiko klasiko baten zantzuak bazuten azkeneko hau aldiz ez da gertatzen egoera diglosiko arruntetan.

Hezkuntzaren lekua euskararen berreskurapen ahaleginetan ulertarazten du fenomeno hau. Egoera diglosiko arruntetan banaketa bat egin ohi da esparru formal eta informalaren artean, baina gure kasuan banaketa horrek ez du balio edo behintzat ez eskolaren kasuan, kasu honetan egoera formaletan gehiago erabiltzen baita euskara. Beste eremuei buruz datu gutxi dugu, baina merkataritza establezimenduen ikerketaren arabera argi geratu da erdararen nagusitasuna eguneroko bizitzan.

Ikasmaila guztietan ikusi dugunez ez dago A ereduaren desagertzeko joerarik, hori diglosiaren adierazlea da Bortzirietako ingurune demolinguistikoan non euskaldunen kopurua erdaldun elebarrarena baino askoz handiagoa den. A ereduaren egonkortasuna (eta azken bi urteetan indarra hartzen ari da) ulertzeko bi hipotesia maneiatu ditugu. Alde batetik, euskaldun batzuk haien umeak elebidundu eta beraz erdaldundu nahi dituzte. Umeak etxean eta haien inguruan euskaraz bizi direnez, eskola da, euskaldun horien aburuz, haien haurrak erdalduntzeko modu bakarra. Indar linguistikoagatik haurrek ez dute inongo arazorik izango erdara ikasteko ondo adierazi behar zaie euskaldun horiei. Ikerketa batzuk egin ziren honen inguruan Gipuzkoan. Beraz plangintzaren helburu bat izan daiteke euskaldun horiek kontzientziatzea.

Bigarren hipotesiaren aurrekoak baino indar gehiago du gure ustez. Hipotesi honen arabera, Bortzirietako biztanleriaren zati bat, txikia baina finkoa %5-10 inguruan erdaraz bizi nahi du edo ez du euskararen beharrik sentitzen. Lan honetan zehar kasu guztietan agertu da talde hau (ezagutza datuetan erabilera datuetan e.a.).

Bortzirietako egoera soziolinguistikoaren adierazlea da erdaldunen euskalduntze maila euskaltegian: erdaldunen %80k ez du lortzen bere helburua eta ez da euskalduntzen, eta lortuz gero 7 urte behar ditu batez beste ikasle batek EGA ateratzeko. Horrek ikasleen interes edo gaitasun txikia adierazten du, edo, eta hori da gure hipotesia eta ikerketa guztian zehar agertzen dena, erdaldunek ez dute euskararen beharrik sentitzen egunerokotasunean eta euskaldunek erraz pasatzen dira erdarara edo ez dute euskararik erabiltzen erdaldunen aurrean, horien ikaste prozesua zailduz.

Taller de Sociologiak egindako lanean informazio soziolinguistiko anitz eskuratu daiteke, aurreko ataleko ondorio guztiak ez errepikatzeko garrantzitsuenak azalduko ditugu hemen:

Bortzirietako biztanleak euskararen galerari aurre egin zaiola uste dute. Hala ere euskararen kalitatea txarra dela azpimarratzen dute. Euskararen erabilera ohiturak mugatzen duela esaten dute eta ohiturak errepresio ideologikoagatik gertatu da askoren ustez. Eskaria bat dago administratibotik ekintza gehiago egiteko euskararen alde eta bere erabilera bultzatzeko, bereziki osasun arloan.

Lehen aipatu dugun bezala baina azpimarratzekoa dena, gizarte osoak trantsiziozko garai batean gaudela uste du. Tradizionala den eredu batetik modernoago baterantz goaz non bizi estiloa eta pentsamoldeak ezberdinak diren. Modernitate honetan hiriek dute pisu handi bat eta ereduak dira, eta hiriei gaztelera lotzen zaie, horregatik gaztelera prestigio handia dauka eta etorkizuneko hizkuntza da. Nagusien hizkuntza ere erdara da eta heldua sentitzeko erdarara jotzen dute gazteek. Horregatik eta hiriko eskaintzak eskuratzeko eta mundu zabalera irekitzeko (amaren altxotik eta herriaren txokotik ateratzeko) 15-17 urterekin euskaratik erdararako jauzia egiten dute gazteek. Ez baitago euskaraz bakarrik bizitzerik. Hizkuntza gertaera hau oso galera handia da eta aurre egin beharko litzaioke, gazteak kontzientziatuz alde batetik baina bereziki gazteei mundu zabalera irekitzeko aukera berriak eskainiz eta helduen mundua euskaldunduz. Beraz helduen artean eta bereziki lanean erabilera bultzatzeko kanpainak eginez. Helduek euskararen berreskurapena hezkuntzarekin bakarrik ziurtaturik ez dagoela ulertu behar dute eta euskara bizirauteko beraiek erabili behar dutela azaldu behar zaie. Bizitza ez baita etorkizunean bizitzen, egunero eta momentuan baizik.

Guraso euskaldunen artean erdara nagusi da oso eta euskararen erabilera handiagoa izaten da aitona-amonekin eta anai-arrebekin. Ikusi dugunez, euskararen erabilera etxeari lotuta dago, eta etxetik kanpo gutxiago erabiltzen da euskara. Etxetik kanpo eremua zenbat eta formalagoa izan orduan eta handiagoa izango dela erdararen erabilera suposatuta daiteke. Hala ere ez da horrela gertatzen eskolaren giroan. Izan ere eskolan giroa zenbat eta formalagoa izan, orduan eta handiagoa da euskararen erabilera.

Erdaldunen arabera aldiz euskara ikasteko beharrik ez dute sentitzen eta horregatik euskara ikasten hasteko motibazio handia behar izaten da haien ustez. Ikaste prozesuan porroten kopurua handia da eta euskara ikasten lortuz gero urte asko behar dituzte erdaldunek; euskaraz bizi den gizarte baten baino askoz denbora gehiago. Horrek ikaste prozesua ia bakarrik euskaltegiaren gelan burutzen dela adierazten du. Ohiturak aldatzeko zailak badira euskaldunak kontzientziatu behar dira eta ohiturak aldatu behar dira alde honetatik. Gainera euskaldunak kontzientziatzeko kanpainak eginez, erdaldunak ere kontzientziatuko dira hizkuntza gatazka osoa euskaldunek bereganatzen dutela azaltzen bazaie.

8 DATUEN IRAKURKETA AURRERA BEGIRA

8.1 Hurrengo datuen irakurketa egiteko irizpideak

Lan honen hasieran azalduta dauden oinarri teorikoek datozen urteetako datuen irakurketa egiteko oinarritzko irizpide batzuk finkatzen dituzte. Azalpen teoriko horiez gain, hemen beste batzuk azalduko ditugu. Bortzirietako egoera zertara doan ikusteko, euskararen erabileraren datuak ematen dituzten informazioak nola irakurri azalduko dugu eta bestetik Euskal Herriko egoera soziolinguistiko arruntenek aurkeztuko ditugu. Bortzirietako hurrengo datuak eredu horiekin konparatuz egoeraren norabidea ikusiko dugu.

Egoera soziolinguistikoaren azterketa euskararen erabileraren arabera. Ereduak:

Egoera soziolinguistiko baten azterketa egiteko erabileraren datuak oso interesgarriak suertatzen zaigu. Datuak haien orokortasunean irakurri behar dira, tokian tokiko egoera zehatza ezagututa, beraz ondoren azalduko diren ereduak teorikoak dira eta egoera zehatz bakoitzari egokitu beharko zaio. Eredu teorikoak azaldu eta gero, Bortzirietako egoera aurkeztuko dugu, aurrera begira Bortzirietako datuen bilakaera eredu horiekin konparatuz egoera soziolinguistikoaren norabidea izango dugu.

Eredu teoriko nagusiak lau dira. Lehenengo ereduak, diglosia klasikoaren ereduak da. Eredu honen arabera adin taldea zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta altuago da euskararen erabilera. Alderantziz adin taldea zenbat eta gazteagoa izan orduan eta txikiagoa da euskararen erabilera. Eredu hau erabat teorikoa da hizkuntza gutxituen galera ez baita egiten horrelako modu lineal batean. Izan ere, hurrek gazteek baino gehiago erabili ohi dute hizkuntza gutxitua egoera diglosiko arruntetan. Hori haurrak adinekoekin gehiago egoten direlako gertatzen da, askotan aitona amonak haurrak zaintzen baitituzte.

Hala ere lehenengo ereduak ez da nahastu behar bigarrenarekin. Bigarren honetan, gazteak dira hizkuntza gutxitua gutxien erabiltzen dutenak. Kasu honetan, egoera diglosiko arruntari aurre egiteko, hizkuntza plangintza bat abian jarri da eta kontzientzia maila altu bati esker, haurretan aurkitzen dira erabileraren datu altuenak eta adinekoen artean, gero helduak agertzen dira eta bukatzeko gazteak. Egoera soziolinguistikoaren abiapuntuaren arabera ezberdina izango da ereduak noski.

Hirugarren ereduak bigarren ereduaren jarraipena da berreskurapen linguistiko baten kasuan. Eredu honetan gazteak bigarren taldea izatera pasatzen dira euskararen erabilerari dagokionez. Hori bereziki hezkuntzari esker eta euskararen ezagutzaren edapenagatik gertatzen da. Lanean erdara izaten delako hizkuntza nagusia, neurri handi batean euskara denek ez dakitelako, helduena da talde erdaldunena hizkuntzaren erabilpenari dagokionez.

Laugarren ereduaren arabera, euskaren ez zekiten helduak 65 urtetik gorako taldera pasatu dira eta horregatik adin taldea zenbat eta nagusiago izan, orduan eta txikiagoa izango da euskararen erabilera maila. Eredu hau lehenengoaren kontrakoa.

Horiek dira Euskal Herriko eredu nagusiak. Dena den eredu bakoitzaren norabidea zein den jakiteko hasierako datuak ezagutu beharko dira, eta berreskurapen lanak noiz eta zein fasetan hasi ziren jakin beharko da.

Bortzirietako egoerak ez du Euskal Herriko batz besteko egoeraren antzarrik. Bortzirietako egoera demolinguistikoa oso euskalduna da, euskara nagusi da ezagutzari eta erabilerari dagokionez eta beraz gure ustez Bortzirietako egoera lau eredu horien aurretik aurkitzen da, baina arrisku bat dago lehenengo eredura pasatzeko, kasu honetan ez litzateke erabat berdina izango baina bai diglosikoa. Izan ere aurreko kapituluan ikusi dugun bezala euskara bigarren hizkuntza da, ez du prestigio nahikorik eta bere beharra ez da sentitzen.

Bortzirietako egoera erabileraren datuak aurkezten ditugunean aztertu dugu:

Bortzirietan euskara gehien erabiltzen dutenak haurrak dira (%82), hau ez da aritzekoa hurrek euskararen erabileran zein neurritan eragiten duten kontutan hartzen bada.

Haurren atzetik, 15 puntura, gazteak aurkitzen dira, haien artean euskararen erabilera %67koa da. Ondoren adinekoak ditugu %60ko erabilerarekin, haurrengandik 22 puntura. Euskara gutxien erabiltzen duen taldea helduena da. Adin talde honetan erdararen erabilera maila euskararena baino altuagoa da. Erdara euskara baino gehiago erabiltzen duen talde bakarra da. Eskema hau egoera diglosiko arruntarena da. Izan ere, hizkuntza gutxitua haurren eta zaharren hizkuntza da. Helduen hizkuntza, eta beraz lan egitekoa eta eredu prestigiotua dena erdara da. Hala ere, normalizazioaren ukitua aurkitzen da datu horietan: hezkuntzari esker gazteen artean ere euskararen erabilera altua da ezagutza hedatuagoa delako gazteen artean helduetan eta adinekoetan baino eta euskararen prestigioa altuagoa delako helduen eta bereziki adinekoen artean baino.

Euskal Herriko bi egoera arruntenen eta indartsuenen azterketa

Atal honetan Euskal Herriko bi indar nagusiak aurkeztuko ditugu laburki. Euskal Herriko egoera arruntenak azterturik, bi gune bereiziko ditugu, alde batetik gune euskaldunenak eta bestetik erdaldunenak. Kasu bakoitzean egoera soziolinguistikoak osagai propio eta bereziak ditu. Azterketa horiek batez ere lan hipotesiak dira baina Bortzirietako datu soziolinguistikoak aurrera begira irakurtzeko lagungarriak izan daitezke.

Gune erdaldunen kasuan, euskara talde hizkuntza bihurtzen ari da, eremu formalekin lotuta (eskola, eta eskolan lan hizkuntzarekin bakarrik). Eskala sozialean igotzeko hizkuntza prestigiotua euskara da neurri batean eta bereziki maila teorikoan (alegia irudietan). Ondorio horiek errepresentazioak aztertuz agertzen dira baina seguruago izateko generoaren araberrako erabilera aztertu beharko litzateke.

Gune horietan, erabilerari dagokionez, haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, gero gazteak agertzen dira, eta erabilpen maila askoz txikiagoarekin hurrengo taldea helduena da. Euskara oso gutxi edo batere ez erabiliz adinekoak agertzen dira bukatzeko.

Haurren presentziak asko baldintzatzen du euskararen erabilera: umeen artean erabilera handiagoa da, bereziki neskatxoek artean.

Eremu euskaldunena da bigarren gune edo indar nagusia. Oso aldakorra da eremu geografikoaren arabera eta barneratutako errepresentazio soziolinguistikoaren arabera (beraz egoera diglosikoaren arabera). Euskara identitate hizkuntza da, norbanakoa, talde txikietan hitz egiteko balio du (hori gunearen arabera izango litzatekeela noski).

Euskara eremu informaletan erabiltzen da, bereziki etxean. Etxea baita bere azken gunea non pribilegiatua dagoen. Eskolan indarra hartzen ari da euskararen erabilera baina paradoxikoki eskolako gune formalenetan erabiltzen da (irakaslearekin) eta eskolako eremua zenbat eta informalagoa izan orduan eta handiagoa da erdararen presentzia.

Generoaren arabera normalean gizonezkoek egingo dute gehiago, hizkuntza lotuta dago gizonezko baloreekin eta hizkuntza gutxitua aldiz emakumezko baloreei lotuta dago.

Adinaren arabera zaharrek gehiago hitz egiten dute (baina hau ere aldakorra da. Oso barneratuta bada diglosiaren auto-odi fenomeno, euskara ez erabiltzera bultzatzen ditu adinekoak).

Gune euskaldunen azterketa zuzena egiteko gune horiek bizi duten une diglosiko zehatza aztertu beharko litzateke.

Errepresentazioak aztertuz euskararen komunitate linguistikoa atxikimendu komunitatea dela argi agertzen zaigu. Euskararen komunitatea ez dago euskararen erabilerari lotuta eta kasu askotan ezta ere ezagutzari lotuta. Euskararen komunitatea euskararekiko atxikimenduari lotuta dago. Fenomeno hau Martel-ek aurkeztu zuen. Autore honen arabera eta laburbilduz artazien fenomeno gertatzen da kasu horietan: egoera diglosikoetan hizkuntzarekiko atxikimendua igotzen den bitartean erabilera jaisten da eta hizkuntza gutxitua folklorizatzen da errepresentazio estigmatizatuak zabalduz komunitatean: hizkuntza gutxitua (dialektoa deitzen zaio, “patois” ez da hizkuntza izatera irizten) bihotzaren hizkuntza da eta hizkuntza gehiengotua, benetan hizkuntza dena, kontzeptuei lotzen zaie. Bata dago herriarekin lotuta, iraganarekin, bestea hiriarekin, etorkizunarekin. Pirandelloren ondorengo aipuak argi adierazten du zabaltzen den ideia: “le dialecte exprime le sentiment, là où la langue exprime le concept” (“Dialektoak sentimendua adierazten duenean, hizkuntzak kontzeptua adierazten du”). Bortzirietan banaketa hau argi agertzen zaigu:

- Taller de soziologiako ikerketaren behatuen arabera trantsiziozko gizarte batean gaude, gizarte tradizionaletik modernorantz doana. Nekazaritza industriara pasatzen ari dena eta publikotik pribatura.

- Modernitateak hainbat aldaketa ekarri ditu:

“Kultura tradizionalaren ordenan eta egonkortasunean oinarrituriko gizarte baten ondotik, gizarte irekiago bat etorri da, behin-behinekotasunean oinarritua, gizarte talde guztiei aldaketa ekarri diena, hala bizi estiloari dagokionez, nola pentsamoldeetan...”

- Inkestaturen arabera, hiria erakargarria da kontsumo eta aisialdirako, herria aldiz lasaitasuna eta ongizatea izateko.

8.2 Euskararen egoeraren diagnostika egiteko behar diren datu soziolinguistikoak

Lekuan lekuko euskararen egoeraren diagnostika egiteko behar diren datu demo eta soziolinguistikoak zeintzuk diren identifikatzen saiatuko gara hemen. Txosten honen laugarren puntuari hainbat metodologi aurkeztuta daude, hemen aipatu besterik ez ditugu egingo, metodologi berri batzuk ere aurkeztuko ditugu hemen.

Eremu geografiko baten, udaltxe baten egoera soziolinguistiko baten egoera soziolinguistikoaren azterketa egiteko bi motako iturri metodologikoak izan beharko ditugu. Metodologi kuantitatiboa oinarri duten datuak alde batetik eta bestetik metodologia kualitatiboa oinarri dutenak.

Metodologi kuantitatiboari dagokionez, erroldetatik atera daitezkeen datuak azpimarratu behar dira bereziki. Kasu horietan euskararen ezagutzari, ama hizkuntzari eta etxeko hizkuntzari buruzko datuak izango ditugu. Maila kuantitatiboan *Euskararen Jarraipena* bezalako iturriak garrantzitsuak dira, bertan hizkuntza gaitasunari buruzko datuak aurkituko ditugu, lehen hizkuntzari buruzko datuak, euskararen galera-irabaziei buruzko datuak adinaren arabera, eta erabilerari buruzko datu aitortuak ere izango ditugu. Adinaren, bizilekuaren eta generoaren arabera gurutzaketak eginez hiztun tipologi batzuk finkatu ahal izango dira ere.

Bortzirietako kasuan datu batzuk falta dira, adibidez errolden datu zehatzago batzuk (adinaren arabera, gurutzaketak e.a.). Gainera Nafarroako datuetan galdera dezente falta dira. Immigrazioaren eta emigrazioen eragina ezagutzeko, datu demografiko gehiago beharko lirateke Bortzirietan. Datu kuantitatiboei buruz ere DBH egin eta gero zenbat gaztek euskaraz ikasten jarraitzen duen jakitea interesgarria izango litzateke. FPen egoera jakitea ere interesgarria izango litzateke.

Ikerketa kuantitatibo horietan jarrera aitortuei buruzko datuak ere izango ditugu. Datu kuantitatibo guzti horiek ezinbestekoak dira errealitate demolinguistikoa aztertzeke, baina ondorioetan sartzeko eta egoera soziolinguistikoaren diagnostika egiteko ikerketa kualitatiboak ezinbestekoak dira. Alde honetatik, Taller de Sociologia-ren lana bereziki interesgarria da eta informazio eguneratuta izatea oso baliagarria izango litzateke, 1998koa baita TS-ren azterketa. Dena den horrelako lan bat egitean eskertzekoa litzateke informazioa irakurtzeko errazagoa izatea eta ondorioetan gehiago sakontzea. Horrelako azterketak, zorri txarrez gehienetan deskripzio hutsean gelditzen baitira.

Bortzirietako egoera soziolinguistikoaren azterketa egiteko eskuragarri den informazioa anitza da eta metodologi kuantitatibo zein kualitatiboetatik lortua. Euskararen erabilerari buruzko datu behatuak baditugu. Interesgarria izango litzateke aldiz datuak eguneratuak izatea eta zehatzagoak izatea gurutzaketak egin ahal izateko eta hainbat aldagaien garrantzia ezagutzeko: adina, generoa, jaio herria e.a. Dena den kontutan hartu behar da datuen jasotze lana eta haien irakurketa egiteko bitarteko handiak beharko liratekeela.

Beste datu batzuk izatea ere interesgarria suertatuko litzateke, gazteen elebiduntasunaren orekari buruzko datuak adibidez. Oreka neurtzeko Elebiduntasunari Buruzko Testa erabili

ahal izango litzateke alde batetik, maila kuantitatiboan, eta bestetik, maila kualitatiboan Bortziritako euskarari buruzko ikerketa egin ahal izango litzateke. Ondorengo kapituluan aurkeztuko ditugu bi metodologi horiek

8.3 Metodologiaren aurkezpena

Ikerketaren atal honetan metodologi berrien aurkezpena egingo dugu, txostenean aipatutakoak beraz ez ditugu aurkeztuko hemen.

Elebiduntasunari buruzko testa

Elebiduntasunari buruzko testa test psikometrikoa da. Erlojupeko test baten bitartez, norbanakoaren lexiko-ekarpena neurtzen da. Elebiduntasunari Buruzko Testak *hitz-erakarpen askeko froga* da. Hau da, testak ikasleek emandako hitz-estimuluen aurrean bururatzen zaizkien ahalik eta berba gehien idaztea du xede. Ez dago erantzun zuzen ezta oker ere. Ikasleei hizkuntzako bosna hitz-estimulu ipintzen zaizkie. Hitzok erabilera arrunteko eremu semantikoko desberdinetakoak dira, natura, arropak, gorputzaren atalak, animaliak eta sendiak. Estimulu bakoitzeko ikasleari 3 minututan ahalik eta hitz gehienak idaztea eskatzen zaie bai euskaraz zein gaztelaniaz.

Hizkuntzen arteko orreka aztertzeke balio du Elebiduntasunari buruzko testa. Testa eginez gazteek erabiltzen duten hiztegia zein den zehaztuko dugu. Horrela bi hizkuntzetatik zein den oparoena eta normalizatuena ikusiko dugu. Datuen bilakaera adin artean aztertuz gero hizkuntzen arteko orekaren bilakaera jakingo dugu, eta bide batez eskolaren eragina. Horretarako elebiduntasunaren indize bat sortzen da eta bere bilakaera adinaren arabera behatzen da.

Test honen oinarri teorikoa Hamers eta Blanc, Quebecoko Hizkuntzalarien ikerketetan aurkitzen da. Gero Lopez Moralesek erabili zuen test hau Puerto Rico-ko egoera aztertzeke eta Avila Munozek ere erabili zuen Malagako bariazio diastratikoa aztertzeke.

Euskal Herriaren kasuan, estimulu hitzak aukeratzeko gehien errepikatzen diren gaiak eguneroko bizitzan zehaztu dira. Alegia maizen erabiltzen diren hitz multzoak zehaztu dira eta honen arabera hitz estimuluak aukeratu dira. Iturria UZEIren maiztasun hiztegia izan da, eta horiek dira zehaztutako eremuak: senideak, soina eta atalak, animaliak, jantziak eta natura. Kontutan izan behar dugu bigarren hizkuntza bat ikasteko funtsezko hiztegia eta maiztasun lexikoak lotuak daudela. Eremu/kategoria bakoitzeko hitz bat aukeratu da euskaraz eta beste bat gazteleraz, hizkuntzen arteko itzulpenak izan daitezkeenak (aita/padre, hermano/anaia-neba...) eta hitz homofonoak (katu/gato, koinata/cuñado...) baztertuak izan dira.

Testak hiru zatitan banatzen da (ikus adibidea eranskinetan). Testaren aurkezpena eta betetzeko azalpenak aurkitzen da lehengo orrian, bigarrenean informazio galdesorta bat aurkitzen da (Jaioteguna, neska ala mutila e.a, ez da izenik ipini behar). Hirugarren zatia testa bera da, 10 orrik osatzen dute azken atal hau. Orri bakoitzak hitz estimulu bat darama.

Bortzirietako euskarari buruzko ikerketa kualitatiboa

Metodologi kualitatiboak oso baliagarriak dira Bortzirietako egoera soziolinguistikoa zehazteke. Baina beste alde batetik, oso baliagarriak izan daitezke ere Bortzirietako euskara,

euskararen kalitatea eta erdararekiko duen irazkortasuna neurtzeko. Horrelako ikerketa bat egiteko aldiz metodologi anitz erabili daitezke eta hemen adibide bakarra aipatuko dugu. Imanol Esnaolak gazteen euskarari buruz egindako ikerketa hain zuzen ere. BAT Soziolinguistika aldizkariaren 24. alean aurkituko ditu irakurleak lan honen xehetasunak. Eranskinetan ere I. Esnaolaren artikulua aurkituko duzue. Ikerketa kualitatiboari buruzko azalpenak 67. orrialde eta 69. orrialdeen artean dago. Ikerketaren ondorio laburtuak 69. orriaren eta 75. orriaren artean daude.

9 DATUEN IRAKURKETA AURRERA BEGIRA

9.1 Erabilitako datuak

9.2 Fergusonen teoriak

9.3 Gazte euskaldunen hizkera

9.4 H. Boyeren teoriak

9.5 Elebiduntasunari Buruzko Testa